



ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO



GRADU AMAIERAKO LANA

ZUZENBIDE GRADUA

IKD i³ Laborategia Berrikuntza Proiektuak 2021/2022

Emakumeen kontrako indarkeria: prozedura judizialaren gabeziak eta biktimen babesa, diziplinarteko ikustegitik (IKDi³ 21-30)

**ERANTZUKIZUN ZIBILA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN
BAITAN**

MAIATZA 2022

EGILEA: NAIA HERIZ RUIZ

TUTOREA: NAIARA RODRIGUEZ ELORRIETA

LABURDURAK ETA SIGLAK

LO	Lege Organikoa
ZK	Zigor Kodea
PKL	Prozedura Kriminalaren Legea
MK	Ministroen Kontseiluak
AG	Auzitegi Gorena
AGE	Auzitegi Gorenaren Epaia
KZ	Kode Zibila
KA	Konstituzio Auzitegia
ZK	Zenbakia
APS	Audientzia Probintzialeko Sententzia
EOA	Espainiako Aldizkari Ofiziala
O.J	Oinarri Juridikoa
Orr	Orrialdea
Art	Artikulua

LABURPENA

Pertsona orok du eragindako kalteengatik konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea, kalte materialak zein moralak izan. Genero-indarkeriaren kasuan baremo kuantitatiboak zehazten dituen lege espezifikorik ez badago ere, beste mekanismo legal eta doktrinal batzuetara jotzeko aukera dago, batez ere, kalte materialen kasuan. Kalte moralaren erreparazioari dagokionez, zailagoa izango da auzitegiek egin ditzaketen balorazio-irizpideak zehaztea kaltetutako emakumearen zenbateko morala ezartzeko.

Hitz gakoak: Erantzukizun zibila, genero-indarkeria, kaltea, kalte morala, balioespena eta kuantifikazioa.

RESUMEN

Toda persona tiene el derecho de recibir una compensación económica por los daños causados, ya sean materiales o morales. Si bien en los casos de violencia de género no existe ninguna ley específica que dictamine unos baremos cuantitativos, existe la posibilidad de acudir a otros mecanismos legales y doctrinales, sobre todo en caso de daños materiales. En cuanto a la reparación del daño moral, será más difícil determinar unos criterios de valoración que puedan tener en cuenta los tribunales para establecer la cuantía moral de la mujer violentada.

Palabras clave: Responsabilidad civil, Violencia de género, daño, daño moral, reparación y cuantificación.

SUMMARY

Everyone has the right to receive financial compensation for damages, whether they are material or moral. Although in cases of gender violence there is no specific law that dictates quantitative scales, the possibility of resorting to other legal and doctrinal mechanisms exists, especially in the case of material damages. Regarding the reparation of moral damages, determining assessment criteria that can be taken into account by the courts to establish the moral amount of the woman who has been assaulted will be more difficult.

Keywords: Civil liability, gender violence, damages, moral damages, reparation and quantification.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	5
2. EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO LEGERIA	6
2.2 Genero indarkeriaren kontzeptua.....	12
3. ERANTZUKIZUN ZIBILA JUSTIZIA SISTEMAN.....	14
3.1 Erantzukizun zibilaren kontzeptua eta funtzioak.....	14
3.2 Egozpenaren oinarritzko araua: errua.....	16
3.3 Erantzukizun zibila osatzen duten elementuak.....	17
4. KALTE-ORDAINAK.....	18
4.1 Kaltearen kontzeptua	18
4.2 Kalte motak.....	19
4.3 Kalte moralaren kontzeptua	21
4.3.1 Kalte morala genero-indarkerian	23
4.3.2 Kalte moralaren eta lesio psikikoen arteko bereizketa	25
5. ERANTZUKIZUN ZIBILA GENERO-INDARKERIAN	26
5.2 Nola zehaztu daiteke kalte-ordainaren “ <i>quantum</i> ”-a.....	26
5.2 Kalte moralari aplikagarri	29
6. KALTE MORALAREN BALORAZIO ETA KUANTIFIKAZIOA GENERO INDARKERIAREN KASUAN	31
6.1 Biktimaren inpaktuzko deklarazioa.....	31
6.2 Kalte morala ebaluatzeko kontu hartu beharreko zenbat irizpide	32
6.3 Genero-indarkeriaren arloko kalte morala kuantifikatzea	34
7. ONDORIOA	36
8. BIBLIOGRAFIA	39
8.1 Doktrina	39
8.2 Legeria.....	41
8.3 Jurisprudentzia	43

1. SARRERA

Denborak aurrera egin ahala genero-indarkeriaren kontzeptuak esanahia eta konnotazio soziala hartu badu ere, indarkeria-mota horrek etengabea izaten jarraitzen du, gure ingurune soziokulturalean gizonen eta emakumeen artean sortutako desberdintasunaren ondorioz, emakumea gizonaren azpitik jarriz, genero jakin batekoa izate hutsagatik, hau da, emakume izate hutsagatik.

Gizarteak indarkeria mota hori gaitzesten duen arren, eta jokabide horri aurre egin ahal izateko gure eskura lehen baino legezko tresna gehiago dauden arren, ez da nahikoa, eta, horregatik, jokabide hori desagerrarazteko, legezko erantzunak eta konponbideak bilatzen jarraitu behar da. Beraz, lan honen helburua genero-indarkeriari emandako legezko erantzunetako bat aztertzea da, zehazki, erantzukizun zibila.

Beste edozein biktimak bezala, genero-indarkeriaren arloko biktimak eskubidea du gauza ekonomikoki itzultzeko, kaltea konpontzeko eta delitu-egitateak eragindako kaltea ordaintzeko. Hala ere, kontua da genero-indarkeriaren arloan, epaian ezarri behar den kalte-ordainaren «*quantum*»-a ezartzerakoan, ez dagoela baremo bat ezartzen duen legerik. Bestalde, ez dago gatazka konpontzeko judizioz kanpoko konponbiderik, genero-indarkeriaren arloan bitartekaritza ezin baita gauzatu.

Lege-hutsune horri irtenbidea emateko, 2004. urtean Genero-Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko lege-proiektua izapidetuko zela aprobetxatuz, MAGRO SERVET genero-indarkeriaren biktimei kalte-ordainak emateko irizpideak bateratzeko helburuarekin artikulua doktrinal bat idatzi zuen¹. Hala eta guztiz ere, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak² – lehen aipatutako proiektua eragin zuen legea – ez du kalte-ordainik aipatzen, eta, hala, ez du inolako baremo edo irizpiderik ezartzen kalte-ordainaren «*quantuma*» ezartzerakoan.

Hori esanda, lan honen helburua genero-indarkeriaren arloko erantzukizun zibila aztertzea da, eta, horrela, kaltea ordaintzeko irizpide orientagarri gisa, zirkulazio-

¹MAGRO SERVET, Vicente, *La violencia económica en la violencia doméstica y de género. ¿Hacia un baremo indemnizatorio para las víctimas?*, Diario La Ley, 6109. zk, Doktrina Atala, 2004ko urriaren 19.

²2004ko abenduaren 29ko EAOn, 313. zk.

istripuetan pertsoneri eragindako kalteak baloratzeko sistema erreformatzeko irailaren 22ko 35/2015 bezalako legeak erabiltzea posible den aztertzea³.

Horretarako, azterlana zehazte aldera, 1/2004 Lege Organikoan azaldutako Genero Indarkeriaren esanahia hartu da kontuan, zehazki, 1) bikotekidearengandik, bikotekide ohiarengandik, ezkontidearengandik edo harreman sexu-afektiboa izan duen pertsonarengandik edozein indarkeria-mota jasan duten emakumeak tratatuz, eta 2) jasadako indarkeria emakume izate hutsagatik gertatu izana.

Bestalde, biktimak kalte-ordaina jaso dezakeen sufritutako kaltea –erantzukizun zibila erreklamatu ahal izateko beharrezkoa dena– zehatz-mehatz aztertu da, kaltea gorputz-indarkeriaren ikuspegitik aztertzeaz gain, kalte morala ere kontuan hartu da, eta, aldi berean, kalte psikologikotik bereizi da azken hau. Era berean, bereziki aipatu da biktimak genero-indarkeriaren arloan jasan ahal izan duen kalte moral ordaingarriari. Kalte moral horrek ez du zerikusirik jasadako kalte fisikoarekin; izan ere, kalte fisikoa txosten medikoen bidez objektiboki aztertu edo zehaztu badaiteke ere, kalte morala genero-indarkeriaren biktimak jasan duen sufrimenduaz, beldurraz edo izuaz ari da, pertsona intimo eta hurbil batek une zehatz edo luze batean eragindakoa, horrela, ziurrenik, biktiman, kalte fisikoa baino gehiago eraginez.

Azkenik, nahiz eta argi egon gaur egun ez dagoela baremo edo irizpide espezifikorik kalte moralen konpentsazio ekonomikoa zehazteko orduan – ezin baita kontuan hartu kalte materialetara doitu daitekeen baremoa –, azterlan honetan aztertu dira kalte hori zehazteko eta kuantifikatzeko erabili ohi diren irizpideak, delituaren biktimaren sufrimenduaren errealitatera ahalik eta gehien egokitzen den zenbatekoa finkatzeko helburuarekin.

2. EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO LEGERIA

Azken urteetan, gero eta gehiago adierazi da emakumearen aurkako indarkeria mundu mailako arazoa dela. Hala ere, emakumearen aurkako indarkeria mundu mailako arazo bezala kontuan hartu aurretik, familian edo etxeko nukleoan gertatzen zen

³ 2015ko irailaren 23ko EAOn, 228. zk.

indarkeria, generokoa izan ala ez, eremu pribatuan ematen zen, eta, hortaz, zigorgabea gelditzen zen, kasuak krimen pasionaltzat hartuz, hau da, amorruren, jeloskorkeriaren, atzipenaldiaren erruz egindako erasotzat hartuz⁴.

Nazioarte mailan sortu zen lehen aldiz emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteko kezka. 1979ko abenduaren 18ko Konbentzioak, emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzkoak⁵, aitortzen du emakumeek oraindik ere diskriminazioa jasaten dutela, eta, beraz, giza eskubideen berdintasunaren eta giza duintasunaren errespetuaren printzipioak urratzen direla. Hortaz, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa giza eskubideen arazo gisa tratatu behar da, eta beharrezkoa da gizonak eta emakumeak gizartean eta familian duten rol tradizionala aldatzea.

1993 urtean Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko 48/104 Ebazpenean aitortu zuen emakumeari gizaki guztien berdintasun, segurtasun, askatasun, osotasun eta duintasunari buruzko eskubide eta printzipioak modu unibertsalean aplikatzea premiazkoa zela⁶.

Era berean, familia-eremuko indarkeria 1989 urtean aurrekusi zen lehenengoz Espainiako zigor legerian, zehazki, ZKaren eguneratzeko ekainaren 21eko 3/1989 LOaren bidez⁷. Honek, ZKaren 421. artikulua⁸ eraldatu zuen, egungo ZKaren 153. artikulua aurrekaria izanik⁹. Lege honek delitu gisa tipifikatzen du ezkontideen edo antzeko harreman afektiboa duten pertsonen aurkako indarkeria fisikoa, bai eta guraso-ahalpeko seme-alaben, adingabeen edo ezgaituen aurkakoa ere; horrela, familia barruko kide ahulenak babesten dira jokabidea oldarkorren aurrean.

⁴ MUÑOZ CONDE, Francisco, *Derecho Penal. Parte especial*, Tirant lo Blanch, Balentzia, 2015, 176 orr.

⁵1984ko martxoaren 21eko EOAn, 69. zk.

⁶1993ko abenduaren 20ko ebazpena, 85th plenary meeting.

⁷1989ko ekainaren 22ko EOAn, 148. zk.

⁸1989ko ekainaren 22ko EOAn, 148. zk. LOaren 425. artikulua: “Norbaitek, normalean eta edozein helbururekin, indarkeria fisikoa erabiltzen badu bere ezkontidearen edo antzeko afektibitate-harremenean lotuta dagoen pertsonaren aurka, bai eta guraso-ahalaren mende dauden seme-alaben gainean ere, edo bere tutoretzapean edo egitezko zaintzapean dagoen apopilo, adingabe edo ezgaiaren gainean, orduan, pertsona horri atzipenaldi handiko zigorra ezarriko zaio”.

⁹1995ko azaroaren 24ko EOAn, 281. zk. ZKaren 153 artikulua: “1. Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabiliz, 147. artikulua 2. paragrafoan aurreikusitakoa baino kalte psikiko edo larritasun txikiagoko beste lesio bat eragiten badu, edo beste bati egitez kolpatzen edo tratatu txarrak ematen badizkio lesiorik eragin gabe, orduan, kaltetua emaztea denean edo izan denean, edo hari antzeko...”.

Arrazoi kultural, erlijioso, psikologiko eta soziologikoengatik eta, biktimek erasotzailea salatzeke zuten beldurragatik, egindako erreformek ez zuten aldaketa garrantzitsurik eragin momentu hartara arte¹⁰. Ondorioz, biktimei irteera eskaintzeko esperantzarekin, 1998 urteko apirilaren 30ean, Ministroen Kontseiluak Etxeko Indarkeriaren aurkako Ekintza Plana onartu zuen hurrengo neurri hauekin: erasotzailea biktimarengandik urruntzeko kautelazko neurriak jarri, tratu txarren ondoriozko faltak ofizioz jartzeko aukera sortu, zigorrak egokitu eta emakumeei arreta emateko unitateak handitu, biktimei prestakuntza ikastaroak eta sentsibilizazio kanpainak emanez¹¹.

Familian egunero ematen den indarkeriari dagokionez, arazoa konpontzeko asmoarekin, Fiskaltza etxeko eta familiako tratu txarren jazarpenean esku hartzeari buruzkoa urriaren 24ko 1/1998 Zirkularra ateratzen du¹². Indarkeria-jokabide horiek epaitzeko garaian interpretazio bideratzeko jarraibide zehatzak biltzen dira. Hortaz, Familia Indarkeriaren Atala eta etxeko indarkeriaren kausen erregistro berezi bat ere ezartzen da, pertsona bati egotzi ahal zaizkion indarkeriazko jokabide errepikakorrak loturarik gabe tratatzea saihesteko eta estatistika fidagarri eta osoak emateko helburuarekin.

Babes-eremua zabaltzeko eta tratu txarretan oinarritutako delituzko jokabideak desagerraraztea lortzeko helburua izanik, indarkeria psikikoa sartu da ZKaren 153. artikuluan, tratu txarren biktimak babestearen arloan 1995 urteko ZK eta PKL aldatzen dituen ekainaren 9ko 14/1999 LOaren bidez¹³. Pertsona babestuen zirkulua zabaltzen da eta honekin batera, zigorrak ere zabaltzen dira, espetxea barneratuz. Hortaz, delituzko jokabideak sortutako emaitzetatik bereizten da penaltasuna, eta, halaber, adierazi behar da “edozein helbururekin” esamoldea kendu egin dela. Esan liteke esamolde honen desagertzeak arazoa larriagotzen duela, badirudi indarkeria erabiltzeko ahalmena ematen duela. Azkenik, “ohikotasun” terminoa egiaztatutako indarkeria-egintzen kopuruari egingo dio erreferentzia, bai eta horien denbora-gertutasunari ere, biktima edozein dela ere.

¹⁰ CORCOY BIDASOLO, Mirentxu, *Problemática jurídico-penal y político-criminal de la regulación de la violencia de género y doméstica*. Revista de derecho (Valparaíso), 2010, 34. zk, 305-347 orr.

¹¹ Madrilen, 1998ko apirilaren 30ean.

¹² 1998ko urriaren 24ko doktrina. FIS-C-1998-00001.

¹³ 1999ko ekainaren 10ko EOAn, 138. zk.

Azken urteotan, neurri eraginkorrak hartu dira eskubide konstituzionalak bermatzeko, hala nola, bizitza, askatasuna, berdintasuna, segurtasuna eta diskriminazio eza. Horien artean, honako arau hauek nabarmendu behar dira: 11/2003 LO, irailaren 29koa, Herritarren Segurtasunaren, Etxeko Indarkeriaren eta Atzerritarren Gizarteratzearen arloko Neurriei buruzkoa¹⁴; 15/2003 LO, azaroaren 25ekoa, ZKaren azaroaren 23ko 10/1995 LO aldatzen duena¹⁵; eta 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua arautzen duena¹⁶. Horiek guztiek eremu zibil, penal, sozial edo hezkuntzako eremu desberdinetan eragin dute, bakoitzak bere araudiaren bidez.

Bestetik, mugimendu feministaren aldarrikapenetik abiatuta, Abenduaren 28ko 1/2004 LO, Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzkoa onartu egiten da¹⁷. Genero-indarkeria berariaz arautu zen eta genero-indarkeriatzat hartu zen gizon batek emakume baten aurka emakume izate hutsagatik erabilitako indarkeria, arazoa diziplina anitzeko ikuspegi batetik tratatuz. Lege integral honen 3.artikuluari aipatzen den bezala, genero-indarkeria saihesteko asmoz, botere publikoek berariazko informazio eta sentsibilizazio kanpainak bultzatuko dituzte.

Nabarmendu beharreko beste arau bat 1/2015 LO da, martxoaren 30ekoa, azaroaren 23ko 10/1995 LO aldatzen duena¹⁸. Genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren arloari dagokionez, lege organiko honen bidez aldaketa batzuk egiten dira, halako delituen biktimei ZKk egun ematen dien babes berezia indartzeko. Lehenik eta behin, generoa diskriminazio-arrazoi gisa sartzen da 22. artikuluko 4. astungarrian. Gainera, zaintzapeko askatasunaren neurriaren eremua zabaltzen da, eta neurri hori ezarri ahal izango da bizitzaren aurkako, tratu txarren eta lesioen delitu guztietan, genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimen kasuan.

Bestalde, genero-indarkeriarekin, etxeko indarkeriarekin eta jazarpen-kasuekin zerikusia duten arau-hausteetan delitu arinak pertsegitせko ez da eskatuko kaltetunak alde aurretik salaketa aurkeztu behar izatea. Gainera, isunak ezartzeari dagokionez,

¹⁴ 2003ko irailaren 30eko EOAn, 234. zk.

¹⁵ 2003ko azaroaren 26ko EAOn, 283. zk.

¹⁶ 2003ko abuztuaren 1ko EAOn, 183. zk.

¹⁷ 2004ko abenduaren 29ko EAOn.313. zk.

¹⁸ 2015ko martxoaren 31ko EAOn 77. zk.

halako delituetan ez da familia-eremua negatiboki kaltetu dezakeen isunik ezarriko. Hortaz, kautelazko-neurriak eta urruntze-zigorak kontrolatzeko helburuarekin, emakumeen aurkako indarkeria kasuetan, betebeharrak urratzean oinarritutako delituen artean jokabide horiek espresuki tipifikatuko dira.

Adingabeei dagokienez, ezin da justifikatu adingabeen aurkako edozein indarkeria mota. Horien artean, genero-indarkeria presente dagoen etxeko inguruneetan bizi eta hazten direnek jasandako indarkeria izugarria da. Adingabeen ongizatea eta garapena kaltetuta eta baldintzatuta egon ohi da indarkeria kasu hauetan, eta askotan, genero-indarkeria jasaten duen emakumea manipulatzeko tresna bihur daiteke adingabea. Hori dela eta, 8/2015 LO, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena¹⁹ adingabeak genero-indarkeriaren biktima direla aitortzen du, haien aurka gauzatu daitekeen indarkeria-mota hori ikusgarri jarritz²⁰.

Era berean, 42/2015 Legea, urriaren 5koa, Prozedura Zibilarren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea erreformatzen duena aldarrikatzen da²¹. Honek doako laguntza juridikoa izateko eskubidea ematen die genero-indarkeriaren biktimei. Biktima horiek prozedura guztian zehar abokatu beraren defentsa izango dute, horrela biktimaren intimitatea bermatzen da eta birbiktimizazioa gertatzeko aukera murrizten da ere.

2016 eta 2019.urteko aldiari dagokionez, Estatuko Gobernuak, Autonomia Erkidegoek, Autonomia Estatutua duten hiriek eta, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak hainbat Estatu-itun onartu dituzte genero-indarkeriaren alorrean, eta horrela, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko politikak bultzatu dira, benetako estatu-politika gisa.

¹⁹ 2015eko uztailaren 23ko EAOn, 175. zk.

²⁰ LOaren Hitzaurrean adierazten den bezala, “haiek ere genero-indarkeriaren biktima gisa aitortzeko, aldatu egin behar da 1/2004 LOaren 61. artikulua: batetik, argitasun handiagoa lortzeko eta, bestetik, epaileek kautelazko neurriei eta segurtasun-neurriei buruzko beren irizpena emateko duten betebeharra azpimarratzeko, indarkeria jasaten duen emakumearen menpeko adingabeak ukitzen dituzten neurri zibilei dagokienez bereziki”.

²¹ 2015eko urriaren 6ko EOAn, 239 zk.

Nolanahi ere, azken urteei dagokionez, NBEek²² eta INEk²³ adierazten duten bezala, emakumearen aurkako indarkeria areagotu egin da COVID-19aren ondorioz. Konfinamenduak, mugikortasunaren mugak eta krisi soziala baldintza egokiak sortzen dituzte Genero Indarkeriaren elementuak indartzeko; emakumeak are gehiago isoltatzen ditu, etxeko itxiera formalaren eta mugikortasunaren murrizketen bidez kontrola areagotzen du, indarkeriaren erabilera ahalik eta gehien errazten duen testuinguru bat sortzen du eta emakume biktimek baliabideak eskuratzea zailtzen du²⁴.

Bada, genero-indarkeriaren biktimak babesteko premiei erantzuna eman nahian, martxoaren 24ko 1/2021 Legeak, genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta haiei laguntzeko premiazko neurriei buruzkoak²⁵, laguntza integraleko eta babeseko zerbitzuak mantentzeko eta egokitzeko neurriak hartzen ditu. Lege honek antolamendu-neurriak ezartzen ditu haiek babesteko zerbitzuen funtzionamendu egokia bermatzeko, bai eta zerbitzu horiek emateko moduak herritarrek bete behar dituzten salbuespenezko egoeretara egokitzeko ere.

Bestalde, ekainaren 5ean 8/2021 LO argitaratu zen, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzkoa²⁶. Indarkeria bikarioa onartzen da, eta ezartzen da genero-indarkeriak barne hartzen duela emakumeei kaltea edo kaltea eragiteko helburuarekin beren senide edo hurbileko adingabeengan erabiltzen den indarkeria ere.

Azkenik, indarkeria matxistari dagokionez, Berdintasun Ministerioak eta Gobernuak indarkeria matxistaren aurkako borrokan errefortzuak bikoiztea eta bikotekidearen eta bikotekide ohiaren esparrua zabaltzea dute helburu. Horrenbestez, genero-indarkeriaren arloan hartutako konpromisoak betetzeko, Gobernuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako III. Plan Estrategikoa (2022-2025) onartu du Ministroen Kontseiluan. Berdintasun Ministerioak defendatzen duenez, feminismoak

²² *La pandemia en la sombra: violencia contra las mujeres durante el confinamiento*, ONU Mujeres, 2020ko apirilaren 6a..

²³ *INEbase / Sociedad /Seguridad y justicia /Estadística de violencia doméstica y violencia de género / Últimos datos*, INE, 2021eko maiatza.

²⁴ LORENTE-ACOSTA, Miguel, *Violencia de género en tiempos de pandemia y confinamiento*. *Revista Española de Medicina Legal*, 46. bolumena, 3. zk, 2020ko uztaila-iraila, 139-145 orr.

²⁵ 2004 ko abenduaren 29ko EAOn, 313. zk.

²⁶ 2021eko ekainaren 5eko EAOn, 134. zk.

enpleguaren aurrean emakumeekin zerikusia duten politika publikoetan eta kontziliazioa eta zaintza bermatzeko egiten dituen eskaerak biltzen dituen plana da²⁷.

2.2 Genero indarkeriaren kontzeptua

Azterlanaren objektuaren mugaketari dagokionez, genero-indarkeriaren eta erantzukizun zibilaren gainerako lana Genero-Indarkeriaren 1/2004 LOaren harira izango da. Azterketa hau bikote-harremana eta generoaren arazoia dituzten genero-indarkeriako kasuei buruzkoa izango da; izan ere, bi ezaugarri bereizi horiek zuzenean eragiten dute genero-indarkeriazko jokabideek eragiten duten kaltearen balorazioan eta larritasunean, bai emakume biktimei, bai jokabide horiek ikusten edo zuzenean sufrizten dituzten adingabeei dagokionez²⁸.

Nolanahi ere, garrantzitsua da adieraztea ez direla berdin erabili behar etxeko, familiako edo generoko indarkeriaren terminoak; izan ere, horrek, indarkeria matxistaren arazoa lausotzea eragiten du, indarkeria hori osatzen duten elementuak identifikatzea zailagoa izanik²⁹. Azken finean, emakumea kaltebera bihurtzen da indarkeriaren ondorioz, eta ez alderantziz³⁰. Horretarako, lehendabizi, familia-indarkeria, etxeko indarkeria eta genero-indarkeria kontzeptuak bereiztea ezinbestekoa da.

Familia-Indarkeriari erreferentzia egiten denean, bizitza pribatuaren testuinguruan gertatzen diren tratatu txarrak edo eraso fisiko eta/edo sinbolikoei buruz ari da, lehen mailako lotura genealogikoak tartean direla (familia nuklearraren berezko ahaidetasun-harremanak). Etxeko indarkeria bizikidetzaren komunaren eremuan erabilitakoa izango litzateke, eta ez du nahitaez lehen mailako ahaidetasun-loturik izan behar, horiek bizikide soilak izan baitaitezke³¹.

Hortaz, familia-indarkeriak familia-nukleoko kideen artean eragindako indarkeria aipatzen du, elkarrekin bizi beharrik gabe, eta etxeko indarkeriak, berriz,

²⁷Irene Montero *aprueba un gasto de 20.319 millones para Igualdad*. El Independiente, 2022ko maiatzaren 9.

²⁸ÁLVAREZ OLALLA, Pilar, *Violencia de género y responsabilidad civil*. Madril, Espainia, Reus Editoriala, 2020.

²⁹PERIS VIDAL, Manuel, *La importancia de la terminología en la conceptualización de la violencia de género*, Oñati Socio-legal Series (on line), 5. bolumena, 2. zk, 2015, 729 orr.

³⁰MONTERO DE ESPINOSA RODRÍGUEZ, Nieves, *La valoración del daño en las víctimas de la violencia de género*, Estudios de Derecho Judicial, Madril, Espainia, 2008, 59 orr.

³¹GORJÓN BARRANCO, María Concepción, Y BERDUGO GOMÉZ DE LA TORRE, Ignacio, *La respuesta penal frente al género. Una revisión crítica de la violencia habitual y de género*, Salamankako Unibertsitatea, 2010.

eremu fisiko jakin batean egiten den indarkeriri, etxea izango litzatekeena, erasotzailearen eta biktimaren artean familia-loturarik egon beharrik gabe.

Bi terminoak bereizi ondoren, komeni da bi kontzeptuak genero-indarkeriatik bereiztea, horrekin lan egingo baita hurrengo orrialdeetan.

1/2004 LOaren 1. artikuluan ematen den definizioa kontuan hartuta³², esan daiteke etxeko eta familiako indarkeriak erasotzailearen eta biktimaren arteko bizikidetzari eta bi subjektu horien arteko familia-loturei egiten diela erreferentzia, eta genero-indarkeriaren kasuan, biktimaren eta erasotzailearen arteko harremana harreman sexual-afektiboa izango litzatekeela, orainaldikoa edo iraganekoa, gainera, indarkeria genero arrazoiaren ondoriozkoa da. Hau da, genero-indarkeriaren kasuan, indarkeria ez da erabiltzen biktima kaltebera delako, baizik eta emakume izateagatik, haren gaineko nolabaiteko kontrola, nagusitasuna, jabetza edo boterea izateko asmoarekin. Bestalde, beharrezkoa da emakumearen eta gizonaren artean harreman sexual-afektibo bat egotea. Ildo horretan, adierazi behar da ez direla aipatzen genero-indarkeriaren ageriko kasuak, hala nola, mota guztietako sexu-erasoak, sexu-jazarpena barne hartuta.

Beraz, azterlan honek aipatutako bi ezaugarriak barne hartzen dituzten genero-indarkeriaren kasuak bakarrik hartuko ditu kontuan: 1) biktima eta delitugilearen artean harreman sexual-afektibo bat egotea beharrezkoa da. Beraz, sexu-erasoa, jazarpena, sexu-abusua eta horrelako emakumeen kontrako delituak ez dira genero-indarkeri bezala kontuan hartuko. 2) Genero-arrazoia dagoenean, etxeko eta familiako indarkeria alde batera utzita. Bestalde, aipatu behar da emakumeak genero-indarkeriaren biktima gisa kontuan hartzeaz gain, indarkeria-mota hori ikusten edo jasaten duten adingabeak ere kontuan hartuko direla, indarkeria-ekintzak eurentzat ez badira ere, adingabeak babesteko, zeharkako biktimatzat hartuko baitira. Kasu batzuetan biktima zuzenak ere izan daitezke, emakumeari kalte egiteko tresna gisa nahita erabiltzen direnean.

³² 1/2004 LOaren 1. artikulua hurrengo adierazten du: “1. Lege honen xedea da indarkeriaren kontra egitea, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan, berbizkeriaren, desberdintasunegoeraren eta gizonak emakumei ezartzen dizkie. 2. Lege honen bidez babes-neurri osoak ezarri dira, eta neurri horien helburua da halako indarkeria prebenitu, zehatu eta ezabatzea, eta indarkeria horren biktimei babes ematea. 3. Lege honek aipatu genero-indarkeriatzat ulertzen da indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere.”

Hortaz, emakumearen aurkako indarkeriaren hainbat termino zehaztu ondoren eta 1/2004 LOak zehaztutako terminoa kontuan hartuta, erantzukizun zibila zer den jorratuko da.

3. ERANTZUKIZUN ZIBILA JUSTIZIA SISTEMAN

3.1 Erantzukizun zibilaren kontzeptua eta funtzioak

Gizakia, harremanetarako gizaki gisa, bere jokabide intersubjektiboaren garapenean etengabe dago erantzukizunean erortzeko aukeran, eta, horregatik, erantzukizun hori gizarte-bizitzari atxikita dago. Erantzukizun horren ondorioz, bere jokabideak sor dezakeen kaltea ordaindu behar du. Horrela, kaltea da faktore erabakigarria eta erantzukizun zibilaren oinarria.

Erantzukizun zibila Kode Zibilaren 1092 eta 1910. artikuluen artean dago araututa³³. Kode zibilaren 1089 hurrengoa adierazten du: *“Betebeharrak sortzen dira legetik, kontratu eta kuasikontratuetatik, eta zilegi ez diren egite nahiz ez-egiteetatik, eta edozein motatako erru nahiz zabarkeriarekin burututako egite eta ez-egiteetatik ere bai”*. Honekin batera, KZaren 1902. artikulua kontratuz kanpoko erantzukizuna arautzen du, honen arabera, norbaitek, egite edo ez-egitearen ondorioz, kalte egiten badio beste inori, tartean errua edo zabarkeria izanik, eragindako kaltea konpontzeko betebeharra izango du.

Beraz, erantzukizun zibila –kalteen ordaina jasotzeko eskubidea ere deiturikoa–, kalte bat jasan duen pertsona nola konpentsatu, norik konpentsatu behar duen eta nola zehaztu nahi duen zehaztea bilatzen duen zuzenbide zibilaren zatia da.

Honek, biktimari kalte-ordain bat ematea du helburu, horrela lesioa konpondu ahal izateko. Baina egia da konpentsazioarekin kaltea desagertzen dela pentsatzea ilusio bat dela, delitu batzuek eragiten dituzten kalteak konponezinak direlako, eta kalte-ordainak ez duelako suntsipen hori ezabatuko³⁴.

³³ 1989ko uztailaren 25ko EOAn, 206.zk.

³⁴ DÍEZ-PICAZO, Luis, *Derecho de daños*, Civitas, 1999.

Kontratuz kanpoko erantzukizun zibilaren izenpean aztertzen den kalteen konponketari honako eginkizun hauek esleitzen zaizkio³⁵:

1. Hondatutako egoera kaltea sortu aurretik zegoen egoera berera itzultzea: funtzio itzultzailea edo ordainekoa.
2. Inor ez kaltetzera behartzen duen arau orokorraren kontrako jokabidearen zehapena: zehatzeko-eginkizuna.
3. Kaltea eragiteko egoeran dauden pertsonak konbentzitzea; prebentzio eginkizuna. Arau zibilek, egindako kaltea ordaintzeko balio badute ere, hori prebenitzeko ere balio dute.

Gure Zuzenbidearen doktrina gehiengoak defendatzen du erantzukizun zibileko sistemak erreparazio- edo konpentsazio-funtzioa duela, Zigor-Zuzenbidearen orbitan sartzen den eta *Ultima Ratio* gisa hartu behar den zehapen-funtziotik urrun³⁶. Hauek hurrengo arrazoien arabera etorriko lirateke³⁷:

1. Zehapena Zigor Zuzenbidearen teknikari dagokiolako, eta, gainera, identifikatu gabeko subjektuek eragindako kalteak daudelako, eta, nolahi ere, biktimak ez dituelako kalte horiek jasan behar. Horregatik, ezin da errugabetasun-presuntzioa kalteen eskubidearen esparruan aplikatu, erantzukizun penalean bakarrik gertatzen baita (AGaren 2020ko urtarrilaren 21eko epaia).
2. Izan ere, pertsona batzuek ez dute beren ekintzez erantzun behar, erantzukizun penaletik salbuetsia daude, baina, hala ere, hauek eragindako kalteagatik erantzun behar dute (KZeko 1903. art.).
3. Erantzukizun zibileko aseguruaren sistemak erruaren irizpidea lausotzen duelako.

Beraz, erantzukizun zibilaren sistemaren helburua biktimak kaltearen ondorioak behin betiko ez pairatzea izan behar da; izan ere, AGaren doktrinak etengabe adierazten duenez, erantzukizun zibilari buruzko gaiek ez dute zehapen-izaerarik. Ondorioz,

³⁵ ROCA TRÍAS, Encarna, Y NAVARRO MICHEL, Mónica, *Derecho de daños.Textos y materiales*, (8th ed.). Tirant lo blanch,Balentzia, 2020, 22 orr.

³⁶ FAYOS GARDÓ, Antonio. *Derecho civil: derecho de obligaciones*. Madril, Dykinson, 2019, 84 orr.

³⁷ ROCA TRÍAS, Encarna, Y NAVARRO MICHEL, Mónica, *Derecho de daños.Textos y materiales*, (8th ed.). Tirant lo blanch,Valencia, 2020, 23 orr.

ordainetan zentratzen da, eta horrek, jakina, ez ditu kaltearen ondorioak erabat ezabatuko, baina horiek arintzen lagunduko du.

Horrek ez du esan nahi kalteen eskubideari prebentzio-helburu bat ere eman ezin zaionik. Helburu hori ez da inola ere bateraezina funtsean ordaina emateko sistema batekin, baina kontuan hartu behar da KZaren 1902 artikulua helburua eragindako kaltearen konpontzea baino ez dela, eta horretan oinarritzen dira jarraian azalduko diren azalpenak³⁸:

1. Erantzukizun zibila eragindako kaltearen larritasunaren arabera mailakatzen da, ez jokabidearen edo egozgarritasunaren arabera.
2. Biktimaren senideek erreklamazioa egin dezakete (ZKko 113 art.).
3. Erantzukizun zibileko aseguruia egin daiteke.
4. Ez da aplikagarria errugabetasun-presuntzioa, KAK eta AGaren jurisprudentziak adierazi duten bezala (AGaren 2003ko otsailaren 13ko epaia).

3.2 Egozpenaren oinarritzko araua: errua

Espainiako Kode Zibilak klausula orokor batean oinarrituta arautzen du erantzukizun zibila. Klausula hori KZaren 1902 artikuluan dago jasota: “Erruz edota zabarkeriaz egintzez edo ez-egitez beste bati kaltea eragiten diona eragindako kaltea konpontzera behartuta dago”.

Eragindako kaltea konpontzeko betebeharra erruan oinarritzen da. AGak behin eta berriz eskatzen du beste bati demandatzen dionak, demadatzailleak jasandako kaltearen egiletza egotziz, frogatu behar duela lesioa demandatuaren erruzko jokabidetik edo zabarkeriatik datorrela, erantzukizun objektiboa edo arriskuagatiko erantzukizuna (errurik gabe) alde batera utzita.

Egintza erruz egin dela adierazten bada, biktima kaltearen egilea nor izan den frogatzera behartzen da, eta honek frogatu behar du kaltea egilearen asmoaren edo jarduketaren zabarkeriaren ondorio izan dela. Aitzitik, arriskuagatiko edo helburuagatiko erantzukizun-sistema batean, kaltea ez zaio pertsonari egozten horretan

³⁸ PANTALEÓN Fernando, *cómo repensar la responsabilidad civil extracontractual*, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, AFDUAM 4, 2000.

izandako partaidetzagatik, baizik eta arriskua sortzearen edo egotearen ondoriozko irizpideen arabera³⁹.

Azkenik, erantzukizunaren ondorioak estaltzeko aurreikusitako sistema aipatu behar da: aseguruua. Horrela, jarduera arriskutsu jakin batzuetan edo agenteentzat kostu bat eragin dezaketen jardueretan kontratatzerara behartzen da, gainera, biktima potentzialak jasotako kalteengatik behar bezala ordaindu ahal izatea bermatzen da. ROCA TRIAS eta NAVARRO MICHELen aburuz, aseguruua arriskua banatzeko formula bat da, eta ez horren prebentzioa⁴⁰.

3.3 Erantzukizun zibila osatzen duten elementuak

Erantzukizun zibila osatzen duten elementuei dagokienez, alde batetik, kaltea aipatu behar da, eta, bestetik, kausalitate-harremana.

Kalteari dagokionez, kalte-ordaina emateko betebeharra dago biktima batek kalte material edo moral bat jasaten duelako. Kaltea erreala izan behar da, eta honen existentzia kaltea alegatzen duenak frogatu behar du. Kalteen kalte-ordaina zehazterako orduan aipatu behar da kasu batzuetan ez dela xehetasunez adierazten kontuan hartu beharreko baremo edo irizpiderik, kalte-ordaina kalkulatzeko modu zehatza ez egonik. Hala ere, kaltea hurrengo atalean aztertuko da zehatz-mehatz.

Bestalde, norbaiti kaltea konpon dezan eskatzeko, kaltea norbaiten egite edo ez-egitearen ondorioz gertatu behar da: kausalitate-harremana egon behar da ekintzaren eta ondorio kaltegarriaren artean. Zenbait teoria daude kaltea eragin duen kausa zein den jakiteko moduari buruz, eta honako bi hauek dira nagusiak⁴¹.

- a) Kausalitate egokia, teoria honen arabera pertsona batek kalte baten aurrean erantzun behar du bere jokabidea kaltearen sortzailea izan bada, eta

³⁹ ROCA TRÍAS, Encarna, y NAVARRO MICHEL, Mónica, *Derecho de Daños, Textos y Materiales*, Tirant lo Blanch, Balentzia, 5. bolumena, 2011.

⁴⁰ ROCA TRÍAS, Encarna, y NAVARRO MICHEL, Mónica, *Derecho de Daños, Textos y Materiales*, Tirant lo Blanch, Balentzia, 5. bolumena, 2011.

⁴¹ FAYOS GARDÓ, Antonio, *Derecho civil: derecho de obligaciones*. Madril, Dykinson, 2019, 90 orr.

- b) Baldintzen baliokidetasuna, zuzenbide penalean oinarrituta, egilea erantzulea dela dio, haren esku-hartzerik gabe kaltea ez litzatekeelako gertatuko

Bestalde, kasu batzuetan errua baztertu egiten da, egileari ezin zaiolako kaltea egotzi, biktimaren erru eskusiboa izango da hau. Errua eskusiboki biktimarena bada, kausazko lotura hautsi egiten da, eta demandatua salbuetsia geratuko da, demandatua izanik errua eskusiboki biktimarena dela frogatu behar duena.

Hori dela eta, kalte bat erantzukizun zibilaren bidez ordaintzeko betebeharra egon dadin, beharrezkoa da, alde batetik, kalte bat egotea, eta bestetik, kausalitate-harremana egotea. Hurrengo atalean, kaltearen kontzeptua eta ordain daitezkeen kalte motak aztertuko dira, kalte moralaren eta psikikoaren arteko desberdintasuna nabarmenduz eta genero-indarkeriako kasuetan kalte morala xehetasunez aztertuz.

4. KALTE-ORDAINAK

4.1 Kaltearen kontzeptua

Kaltea erantzukizun zibilaren mekanismoa abian jartzeko ezinbesteko baldintzetako bat da. Kalte-ordaina emateko betebeharra dago ekintzaren edo ez-egitearen ondorioz biktimak kalte material edo moral bat jasan duelako, eta kalte hori konpondu egin behar delako (KZ 1902 artikulua). Beraz, kalterik ez dagoenean, ez da inolako betebeharririk sortuko, konpontzeko ezer ez dagoelako. Hortaz, horretarako, kaltea zer den definitu behar da.

Kaltearen kontzeptuak bi esanahi desberdin izan ditzake: 1) zentzu zabalean, kaltea dago edozein eskubide subjektibo kaltetzen denean; 2) zentzu hertsian, kaltea eskubide subjektibo, ondare-eskubide edo ordareaz kanpoko eskubide jakin batzuen gainekoa izan behar da, eta horiek kaltetzeak, egoera jakin batzuetan, ondare-zehapena eragiten du.

Beraz, juridikoki garrantzitsua den interes baten kaltea edo galera da kaltea. Espainiako Zuzenbideak klausula orokor batean oinarrituta egituratzen du kalte-ordainen sistema, eta ez jokabide jakin batzuk antijuridikotzat tipifikatzearen arabera. Hala, kalte

ordaingarria zertan datzan zehaztea zaila egiten da, ez baita soilik legeak tipifikatutako ekintza baten ondoriozko kalteen aurrean erantzun behar. Beraz, biktimak jasan behar ez dituen eta KZren 1902.artikuluaren ezarritako baldintzak betetzen dituzten kalteak, kaltea eragin duenaren kontura kalte-ordaina emateko betebeharra sortzen dute.

Kalte ordaingarria izan dadin, egiazkoa izan behar da. Kalte-ordaina jasotzeko moduko kalteak jasan dituela alegatzen duen pertsonak frogatu egin behar du kalte horiek badirela. AGaren 2003 urteko otsailaren 21eko epaiaren arabera⁴², erreklamatzailari dagokio kaltearen froga honek eskura duenean. Bestetik, adierazten du erreklamazioaren alderdi horretan ezin dela frogaren karga inbertitu. AGak adierazten duen bezala, batzuetan, zaila izaten da kaltea frogatzea, kalte moralarekin edo kaltea gertatu aurretik kaltetutako gauzaren egoerarekin gertatzen den bezala (ezin da froga exijitu, probatio diabolikoa delako)⁴³. Beraz, badira legezko salbuespen batzuk kaltea frogatzeko behar horri dagokionez.

Hori dela eta, kaltetutako ondasunaren izaera erreparatuko da kaltearen izaera zehazteko orduan. Kaltea interes bat suntsitzea edo kaltetzea denez, kaltearen izaerak lotura estua izan behar du lesionatutako ondasunaren izaerarekin. Eta interesak ondarezko eta ondarezkoak ez diren ondasunen gainekoak izan daitezkeenez, kalteak izaera bat edo bestea izango du, zuzenean eta nagusiki kaltetzen den ondasunaren izaeraren arabera.

4.2 Kalte motak

Erantzukizun zibila dakarten kalteen sailkapenari dagokionez, ondare-kalteen eta ondarezkoak ez diren arteko bereizketak lortu du, zalantzarik gabe, garrantzi teoriko eta praktikoa handiena. Honekin batera, Zigor Kodearen 110.3 artikuluan ere dago jasota bereizketa hori.

⁴² 2003ko otsailaren 21ko AGE.

⁴³ ROCA TRIAS, Encarna eta NAVARRO MICHEL, Mónica. *Derecho de daños. Textos y materiales*, 8. argitalpena, Tirant lo Blanch editoriala, 2020, 233 orr.

Ondare-kalteei dagokienez -kalte materialak be deiturikoak-, kaltetuaren ondareari eragiten diotenak dira, eta kuantifikagarriak eta objektiboak izan ohi dira⁴⁴. Era berean, KZko 1106. artikuluan jasotzen diren bi elementu barne hartzen dira⁴⁵.

1. Sortutako kaltea: lesio baten ondoren gertatzen den galera erreala, eraginkorra eta egiaztatua izango litzateke. Hau da, honen existentzia erabat frogatuta dago eta kalte-ordaina haren balio ekonomikoari dagokio.
2. Lortu gabeko irabazia: kalte horren ondorioz lortu ez diren diru-sarrea edo irabaziei dagokie. Zailtasunez kuantifika daitekeen kontzeptua da, izan ere, lortuko ez diren diru-sarreretatik eratorritako galeren balorazio ekonomikoan baitatza, eta horrek probalitate-aldagai bat sartzea dakar, etorkizunean gertatuko den kaltea aztertzeke.

Beraz, kaltetuak jasan duen benetako galera efektiboaren ondorioz sortzen diren kalte-galeren ordaina eman beharko da, eta, gainera, kalte horien ondorioz kaltetuak jada lortu ez dituen irabaziak.

Bestalde, ondarezkoak ez diren kalteei dagokionez, SANTOZ BRIZ honela definitzen ditu: “Dirutan baloratzeak ondare-kalteen ezaugarri den oinarri baliokiderik ez dutenak, dirutan baloratzea zaila den elementu edo interesei eragiten dietelako”⁴⁶. Hala, ondareaz kanpoko kalteek diruzko balorazioa egitea eragozten dute, interes ez-ekonomikoen gainekoak direlako. Beraz, pertsonaren ondasun juridikoei eragiten dietenak dira, hala nola sinesmenak, duintasuna, ohorea, gizarte-estimua edo pertsonen osasun psikikoa.

Egile espainiarrek, hainbat argudio erabiliz bi azpiespezie bereizi dituzte ondarekoak ez diren kalteen kategoria generikoaren barruan. Azpiespezie horiek bat datoz, hurrenez hurren, gorputzeko kalteak eta kalte moralak deitzen dutenarekin.

GARCÍA SERRANOren ustez, ondareaz kanpoko kalteen kategoriaren barruan honako hauek sartzen dira: 1) kalte moralak, pertsonaren sentimendu eta afektu

⁴⁴NAVEIRA ZARRA, Maita María, *Clases de daños resarcibles. El resarcimiento del daño en la responsabilidad civil extracontractual*, Coruñaiko unibertsitatea, 2004.

⁴⁵ ¿Qué es el lucro cesante y el daño emergente?, Promede, Madril, 2020ko abuztuaren 21.

⁴⁶ SANTOZ BRIZ, Jaime. *La responsabilidad civil: derecho sustantivo y derecho procesal*. Montecorvo Editoriala, 1977, 162 orr.

intimoekiko edo nortasunaren ondasun edo eskubideekiko (askatasuna, ohorea, intimitatea, norberaren irudia...) lesio edo atentatuekin identifikatzen dituenak, eta 2) kalte fisikoak edo gorputzekoak, hau da, pertsonen osasunaren aurkako atentatuak edo lesioak, fisikoak zein psikikoak⁴⁷.

Kaltearen adierazpenaren barruan sartzen diren kontzeptuari eta kategoriei buruzko azalpena osatzeko, AGaren Lehen Salaren 2001 urteko otsailaren 22ko epaiak⁴⁸ kalte-galera ordaingarriak zehazteko motei eta irizpideei buruzko jurisprudenzia-doktrinaren laburpen bat jostetzen du (5. O.J), AGak 3 azpimultzotan banatzen du kaltea: 1) pertsonala edo gorputzekoa –subjektu baten osasunaren gaineko lesio edo kaltea–; 2) materiala –sortutako kaltea eta lortu gabeko irabazia – eta 3) morala –sufrimendu ez fisikoa bezala–.

4.3 Kalte moralaren kontzeptua

Kalte moralaren kontzeptuari dagokionez, eta kontuan hartuta gorputz-kalteetatik bereizita dagoela, AGak, lehendik dagoen doktrina eta jurisprudenzia kontuan hartuta, hurrengo definizioa ematen du⁴⁹: “*todas aquellas manifestaciones psicológicas que padece o sufre el perjudicado -o persona allegada al mismo por vínculos afectivos o parentales-, por el acaecimiento de una conducta ilícita, y que por su naturaleza u ontología, no son traducibles en la esfera económica*”. Hau da, Auzitegiak agerian uzten du zuzeneko kalte moralen ordaingarritasuna –lesionatutako interesaren titularrak zuzenean jasandako–, bai eta zeharkakoena –biktima nagusiaren ahaideek jasandako kalteak–.

Kalte moralaren definizioa emateaz gain, Auzitegiak, epai honetan, kalte moralaren mugaketa zehatzagoa eskaintzen du, kalte moralaren integrazio negatiboa eta positiboa definituz.

⁴⁷DE ASIS GARCIA SERRANO, Francisco. “*El daño moral extracontractual en la jurisprudencia civil*”, ADC,1972, 802-803 orr.

⁴⁸ 2001eko otsailaren 22ko AGE.

⁴⁹ 2001eko otsailaren 22ko AGE.

Integrazio negatiboaren bidez⁵⁰, Auzitegia kalte morala beste kalte moten aurrean indibidualizatzen saiatzen da. Indibidualizazio hori gauzatzeko, Auzitegiak horien itzulpen ekonomikoaren irizpidea aipatzen du. Kalte moralak (askatasuna, ohorea, intimitatea...) ezin izango lirateke termino ekonomikoetan neurtu; kalte materialak, berriz, bere “*quantum*” ekonomikoan itzul daitezkeen ondasunak dira, eta gorputzeko kalteak, akoplamendu soziokulturaleko teknika baten bidez ere dirutan itzul daitezke.

Bestalde, integrazio positiboari dagokionez⁵¹, Auzitegiak hurrengoa adierazten du: “*por el seguimiento empírico de las reacciones, voliciones, sentimientos o instintos que cualquier persona puede padecer al haber sido víctima de una conducta transgresora*”.

Beraz, Auzitegiak kalte moralaren kontzeptua azpikategorizatzen saiatzen da. 1) lehenengo taldean legez kontrako gertaeraren ondorioz biktimak jasan dituen sufrimendu eta min fisiko edo psikikoak sartzen dira, buru-kikiltzea barne. 2) kalte moral horren alderdi integratzailea izan daiteke “*cualquier frustración, quebranto o ruptura en los sentimientos, lazos o afectos, por naturaleza o sangre que se dan entre personas allegadas fundamentalmente por vínculos parentales, cuando a consecuencia del hecho ilícito, se ve uno de ellos privado temporal o definitivamente de la presencia o convivencia con la persona directamente dañada por dicho ilícito*”. Era berean, Auzitegiak adierazten du kaltetunak izango duela erantzukizun zibila eskatzeko orduan kalte morala frogatzeko ardura.

⁵⁰ AGak hurrengoa adierazten du: “*Y puede en esa línea entenderse como daño moral, en su integración negativa toda aquella detracción que sufre el perjudicado damnificado y que supone una inmisión perturbadora de su personalidad que, por naturaleza, no cabe incluir, en los daños materiales porque éstos son aprehensibles por su propia caracterización y, por lo tanto, traducibles en su “quantum económico, sin que sea preciso ejemplarizar el concepto; tampoco pueden entenderse dentro de la categoría de los daños corporales, porque éstos por su propio carácter, son perfectamente sensibles, y también, por una técnica de acoplamiento sociocultural, traducibles en lo económico.*”

⁵¹ AGak hurrengoa adierazten du: “*En cuanto a su integración positiva, hay que afirmar -siguiendo esa jurisprudencia-, que por daños morales habrá de entenderse categorías anidadas en la esfera del intimismo de la persona, y que, por ontología, no es posible emerjan al exterior, aunque sea factible que, habida cuenta la ocurrencia de los hechos (en definitiva, la conducta ilícita del autor responsable) se puede captar la esencia de dicho daño moral, incluso, por el seguimiento empírico de las reacciones, voliciones, sentimientos o instintos que cualquier persona puede padecer al haber sido víctima de una conducta transgresora fundamento posterior de su reclamación por daños morales*”.

Bestalde, jurisprudentziak hainbat egoera aipatu ditu, besteak beste, inpaktu edo sufrimendu psikiko edo espirituala (1990eko uztailaren 23ko epaia), ezintasuna, urduritasuna, antsietatea, larritasuna (1990eko uztailaren 6ko epaia), urduritasunaren, ezinegonaren, ausardiaren, beldurraren edo ziurgabetasunaren sentrazio animiko gisa (1995eko maiatzaren 22ko epaia), antsietate-nahasmendua, inpaktu emozionala, ondoriozko ziurgabetasuna (1998ko urriaren 27ko epaia), inpaktu, kalte edo sufrimendu psikikoa (1999eko maiatzaren 12ko epaia).

Beraz, aurretik esandakoa eta AGaren 2010eko ekainaren 15eko epaia kontuan hartuta⁵², kalte moralak daude pertsonaren osasun espirituala edo osasunaren, ohorearen, askatasunaren, intimitatearen edo antzekoen ondasun materialak erasotzen direnean.

Auzitegiek behin eta berriz adierazi dutenez, legegileak kalte-ordainaren mende jarritako jokabideren baten ondorioz subjeto pasiboak jasandako sufrimendu, kezka, nahigabe, kontrakotasun, larritasun edo molestia eta deserosotasunak ordaindu behar dira⁵³.

4.3.1 Kalte morala genero-indarkerian

Genero-indarkeriako delituetan, kalte morala larriagotzat jotzen da, mota horretako delitu-egitateen ezaugarri bereziak direla eta; izan ere, delitu-egitate horietan inguruabar pertsonal jakin batzuk gertatzen dira, biktimen sufrimendua areagotu edo areagotu dezaketenak⁵⁴.

Esan liteke genero-indarkeria jasaten duen emakumeak bere autonomia pertsonala galtzen dutela; izan ere: 1) Indarkeria eragindako pertsona ezaguna, gertua eta maitatua izan delako biktimaren bizitzaren momentu batean; 2) askotan herritar gehienak seguruago sentitzeko joera duten lekuan hedatzen da: biktimaren etxean

⁵²2010eko maiatzaren 15eko AGE.

⁵³Auzitegi Probintzialeko Sententzia, Balentzia, 8. atala, 1995eko ekainaren 14a.

⁵⁴AGaren 2012ko martxoaren 14ko epaiak (31866/2012 Legea), 2003ko ekainaren 27ko AGaren epai garrantzitsua jarraituz (13138/2003 Legea), honako hau aipatzen du: *“un comportamiento delictivo que, por sus especiales circunstancias, no puede agotarse en una acción concreta y en un solo resultado causal... (Supone) una agresión continuada, que afecta no sólo a la integridad física sino a la dignidad y la estabilidad psíquica de la persona que, en el seno de una relación de pareja, se ve sometida, por uno de sus componentes, a una vejación y humillación continuada, metódica y deliberada, que tiene como objetivo conseguir una situación de dominio, que vulnera la propia personalidad de la víctima”*.

bertan; 3) emakumea kontrolatzeko indarkeria instrumentala da, kaltea eragitea baino gehiago emakumea menderatzea bilatzen duena, nahiz eta lehenengo horretara jo eta 4) normalean ziklikoa izan ohi da, oro har, tentsioak metatzeko fase batekin hasten da zikloa, tratu txarren edo erasoek ekintzekin bukatzen dena, eta ondoren, beste adiskidetze-fase bat gertatzen da. Fase honen ondoren, seguruenik, beste indarkeria-ziklo bat hasiko da⁵⁵.

Horretaz aparte, genero-indarkeriaren berezko ezaugarrietako bat tratu txarren eta biktimaren sufrimenduaren jarraitasuna izaten da, beste delitu batzuen kasuan ez bezala, horiek zehatzak eta egintza-batasunean zehaztuak izaten baitira. Horregatik, besteak beste, kasu horietan kalte morala delituaren jarraipenarekin lotzen da⁵⁶.

Ildo horretan, Kartagenako Zigor-Arloko Epaitegiak 2014ko otsailaren 27ko 58/2014 epaiak⁵⁷, kalte-ordaina aitortzen dio genero-indarkeriaren biktima bati, kalte moralagatik. Epaileak, alde batetik, jokabidearen elementu kuantitatiboa eta tenporalari egiten dio erreferentzia, indarkeria-jokabidea urte askotan jarraitua izan baita. Bestalde, biktimak izan ditzakeen ondorioei dagokienez, epaileak alegatzen du biktima kosifikatuta, larrituta eta entristezituta sentitu dela askotan, eta askatasunean bizitza duina garatzeko oinarrizko autonomia pertsonala kendu egin zaiola. Zigor-arloko epaitegiak ere ez ditu alde batera uzten zaugarritasun pertsonal eta sozial sakoneko adierazleak.

Bestalde, genero-indarkeriarekin lotutako delituetan, MAGRO SERVETek hainbat parametro aipatzen ditu kalte moralagatiko kalte-ordaina kontuan hartzeko⁵⁸:

- Genero-indarkeriako delitu diren egitateak gertatzea, beharrezko ez izanik kalte morala bera espresuki jasota egotea frogatutako egitateen kontakizunean, egitate horietatik ondoriozta daitezke-eta.

⁵⁵ HERRERO ÁLVAREZ, Sergio, *El ajeteo jurisprudencial sobre la dispensa del deber de declarar en procesos por violencia de género: la sentencia 389/2020, de 10 de julio*, Diario La Ley, 9693. zk, 2020, 2 orr.

⁵⁶ GARCÍA LÓPEZ, Rafael. *Responsabilidad civil por daño moral. Doctrina y jurisprudencia*, 1990, Librería Bosch.

⁵⁷ 2014ko otsailaren 27ko Zigor-arloko epaitegiaren epaia.

⁵⁸ MAGRO SERVET, Vicente, *El daño moral indemnizable en la violencia de género*, Diario La Ley, 9015. zk, 2017.

- Ulertzen da kalte morala ezin izango litzatekeela diruarekin itzuli, hala ere, ordain daitekeen kaltea da.
- Genero-indarkerian kalte morala finkatzerakoan, kontuan hartu beharko dira gertakariaren larritasuna, iraupena eta eragindako kalteen ondorioak.
- Kalte-ordaina jaso dezakeen biktimak, kalte morala gertatzeko oinarrizko baldintza genero-indarkeriaren biktimari sufrimendu edo pairamen psikiko bat eragitea izango da.

Kalte morala egiaztatzeari dagokionez, onartu egin beharko litzateke epaile eta auzitegiek kalte moralaren existentzia aitortzea, kalte-ordaina jasotzen duen subjektuak pairamen argia eta objektibagarria duela ondorioztatzeagatik, kaltearen froga objektiborik egon gabe, baina biktimak beharrezkoa ez den tormentua eragin zion egoera bidegabea jasan zuela agerian utzita, genero-indarkeria pairatzen duten emakumeen kasuan bezala⁵⁹.

4.3.2 Kalte moralaren eta lesio psikikoen arteko bereizketa

Bi kontzeptu hauek ez dira nahastu behar, zeren eta elkarri lotutako egoerak izan arren, bereizi egin behar dira ondorio psikikoak eta gertaera jakin batek biktimari eragin diezazkiokeen kalte moralak edo sufrimendu animikoa. Kalte moralak biktimari kalte psikiko zehatzak eragin ohi dizkion arren, ez da beharrezkoa kalte horiek batera gertatzea ondarez kanpoko kalte moral hori ordaintzeko.

Hala, AGaren Zigor-arloko Salaren 855/2011 epaiak hurrengoa adierazten du⁶⁰: *“esta sala considera que aunque no pueda concluirse con la prueba documental aportada a autos y las asistencias médicas acreditadas que se haya causado un daño objetivo de índole psicológica como el alegado por las acusaciones en la denunciante;... (no es) preciso que los daños morales se concreten en alteraciones psicológicas para ser indemnizados...”*; Oinarrizko irizpide horri eusten dio, beste ebazpen judicial batzuen artean, AGaren 1743/2014 epaiak⁶¹, zeinak azaltzen baitu *“que los daños morales no es preciso que tengan que concretarse en relación con*

⁵⁹ MAGRO SERVET, Vicente, *El daño moral indemnizable en la violencia de género*, Diario La Ley, 9015. zk, 2017.

⁶⁰ 2011eko abenduaren 14ko AGE.

⁶¹ 2015eko otsailaren 17ko AGE.

alteraciones patológicas o psicológicas sufridas por las víctimas, bastando que sean fruto de una evaluación global de la reparación debida a las mismas...". Hala ere, kontuan hartu behar da be eragindako kalteak bizitza pertsonalean eta kaltetuen ongizate psikologikoan izan duen eragina⁶².

Beraz, bi kontzeptuen arteko bereizketa oso garrantzitsua da, lesio psikikoak gaitzestea baina kalte moralak onartzea gerta litekeelako. Kalte morala egoteko ez da beharrezkoa lesio psikikoa egotea, baizik eta baizik eta sufrimendu-egoera bat, denboran luzatutako kezka bat, desohorea eta abar egotea.

5. ERANTZUKIZUN ZIBILA GENERO-INDARKERIAN

Kalteari dagokionez, kasu batzuetan bakarrik adierazten da zehatz-mehatz kalte-ordaina zehazteko modu zehatza; hala gertatzen da zenbait datu – baremoak – dituzten taula batzuk erabiltzen direnean kaltearen balorazio objektiboa ezartzeko, kaltea jasan duenaren baldintzetara egokituta. Azpimarratu behar da eragindako kalte guztiak ezin direla ordaindu. Horrenbestez, genero-indarkeriako delituen erantzukizun zibila aztertuko da ondoren, kalte materialak zein moralak ordaintzerakoan garaian aplikatu beharreko legea aztertuz.

5.2 Nola zehaztu daiteke kalte-ordainaren “*quantum*”-a

Beste edozein biktimak bezala, genero-indarkeriaren biktimek eskubidea dute gauza lehengoratzeko, kaltea konpontzeko eta delitu-egitateak eragindako kaltea berreskuratzeko. Horrenbestez, genero-indarkeria desagerrarazteko eta biktimei kalte-ordain ekonomikoak emateko helburuarekin, beharrezkoa da kalte-ordainen “*quantum*”-a finkatzea. Dena den, 1/2004 LOak ez du inolako arau, parametro edo irizpiderik ezartzen genero-indarkeriako kasuetan eragindako kalteengatik ezarri beharreko kalte-ordainak zehazteko; beraz, ezinbestekoa da beste mekanismo batzuetara jotzea kalte-ordainen “*quantum*”-a zehazteko⁶³.

⁶²VELA SÁNCHEZ, Antonio, *Claves para la indemnización por daño moral en la violencia de género sobre la pareja*, Diario La Ley, 9774. zk, Doktrina Atala, Wolters Kluwer Argitaletxea, 2021eko urtarrilaren 20.

⁶³DEL CORTE LÓPEZ, Javier, *Aspectos civiles de la violencia de género: indemnización del daño moral*, 2020ko azaroa.

Irailaren 22ko 35/2015 Legeak, zirkulazio-istripuetako pertsonen eragindako kalteak eta galerak baloratzeko sistema erreformatzen duenak⁶⁴, 32. artikuluan aipatzen du haren xedea dela lege honetan araututako zirkulazio-egitateek eragindako gorputz-kaltearen ondorioz pertsonen eragindako kalte guztiak baloratzea. Era berean, hirugarren xedapen gehigarrian honako hau gehitzen da: “Lege honetan araututako balorazio-sistema erreferentzia gisa balioko da etorkizunean osasun-jardueraren ondorioz sortutako kalte-galeren kalte-ordainen baremoa arautzeko”.

Auzitegiek maiz aplikatzen dituzte baremo horiek – izaera orientagarri eta ez-loteslearekin– trafikoarenak ez diren beste eremu batzuetan, hala nola, heriotza baten ondoriozko lesio fisikoen edo kalte moralen dolozko delituetan, genero-indarkeria kasu, edo osasun-arloko erantzukizun medikuaren kasuetan⁶⁵. Hori dela eta, Genero-indarkeriaren Biktimei buruzko Lege Organikoak 35/2015 legean aurreikusitako trafiko-baremora jotzen du genero-indarkeriatik eratorritako delituengatik kalte-ordainaren zenbatekoa finkatzeko.

Hala ere, nahiz eta lotura komuna bi egoeren antzeko kalte-ordaina emateko premian oinarritzen bada ere, ezin da alde batera utzi trafiko-istripu baten ondoriozko lesioak eta genero-indarkeriako ekintzek eragindakoak desberdinak direla. Lehenengoak zuhurtziagabeak dira, ibilgailu motordun batek egiten ditu, eta, batez ere, aseguru-poliza batek babesten ditu, eta seguru-poliza horrek hartzen du gastu ekonomikoen ardura; aitzitik, genero-indarkeriak eragindako lesioak doluzkoak dira, eta ez dute aseguru-polizaren babesik. Beraz, genero-indarkeriaren gertakariak eragindako kalteen kalte-ordainak finkatzeko, 35/2015 Legearen baremoa aplikatzea nahitaezkoa ez bada ere, irizpide orientagarri gisa erabil daiteke⁶⁶.

Hala ere, nabarmendu behar da kalte-ordaina finkatzeko irizpideak eta oinarriak desberdinak direla, eta horrek nolabaiteko segurtasun juridiko eza sortzen du eta.

⁶⁴ 2015ko irailaren 23ko EAOn, 228. zk.

⁶⁵ MAGRO SERVET, Vicente: “*La necesidad de unificar criterios indemnizatorios en violencia de género.*”, *Diario la Ley*, Welters Kluwer argitaletxea, 8757. zk, 2016.

⁶⁶ Auzitegi Goreneko 2003ko ekainaren 9ko 833/2003 epaia.

Genero-Indarkeriako kasuetan, AGak hainbat irizpide aplikatu ditu kalte-ordaina zehazteko garaian⁶⁷:

- Zirkulazioaren baremoaren taulak osasungintzan alta emateko datan, %10 eta %20 arteko igoera txiki batekin.
- Trafiko-baremoa %30 handituta kontuan hartzea.
- Trafikoaren baremoa gehikuntzarik gabe kontuan hartzea.
- Trafiko-baremoa irizpide orientagarri bezala kontuan hartzea.
- Epaileak irizpide-askatasuna izatea, Trafiko-baremoa kontuan izan gabe.

Oro har, AGaren jurisprudentziak bi faktore argi ezartzen ditu kalteak ordaintzeko irizpide gisa⁶⁸:

1. Genero-indarkerian oinarritutako irizpiderik egokiena osasun-arloan alta emateko datan finkatuta dagoen baremoa %10 eta %20 artean handituta izango da.
2. Auzitegiak genero-indarkeriako kasuetan kalte-ordainaren zenbatekoa finkatzen duenean, epaiak zenbatekoa jaso behar du, hura irizpide batera bideratuz, zehazteko oinarriak ezarriz, bigarren auzialdian berrikus ez dadin. Oinarriak finkatzeko betebeharra betetzen ez bada, “*quantum*”-a aldatu ahal izango da, baremoaren gehieneko kopurura mugatuz⁶⁹.

Horrenbestez, genero-indarkeriaren kasuetan, 35/2015 Legea hartuko da irizpide orientagarri bezala. AGaren arabera, baremoan ezarritako zenbatekoa igo ahal izango da kasu bakoitzaren arabera.

⁶⁷MAGRO SERVET, Vicente: “*La necesidad de unificar criterios indemnizatorios en violencia de género.*”, *Diario la Ley*, Welters Kluwer argitaletxea, 8757. zk, 2016.

⁶⁸2013ko uztailaren 2ko AGE.

⁶⁹Bosgarren Oinarri Juridikoa: “*En todo caso, si se entendiese desproporcionada la cantidad e incumplido el deber de fijación de las bases, podría modificarse el quantum, la SSTS de 7.4.1990 , 2.10.2000 y 25.9.2001 . Esta última expresaba que "es criterio consolidado de esta sala que la fijación de la indemnización corresponde al prudente arbitrio del tribunal de instancia y que lo único revisable en casación son las bases conforme a las cuáles se hubiera determinado la indemnización. Ahora bien, cuando tales bases no se han concretado y los datos relativos al concepto indemnizable denotan una clara falta de proporción en la apreciación, en este caso, por defecto, el alcance de la casación no puede mantenerse dentro de esos límites, por razones de justicia material y porque, además, existe información probatoria apta, por rigurosa y perfectamente documentada, para realizar en esta instancia una adecuada ponderación del daño corporal padecido por el recurrente". De aceptarse esta tesis, el quantum debería limitarse a la cantidad máxima del Baremo de 2012, por tratarse de deuda valor, aumentada en un 10% por el carácter doloso de los hechos*”.

5.2 Kalte moralari aplikagarri

Batzuetan, genero-indarkeriako prozeduretan ahaztu egiten da epaian ezarritako egitate frogatuen kontakizunetik ondoriozta daitekeen zehaztapen – erantzukizun zibilaren barruan –. Izan ere, begi-bistakoa dirudi, lesio fisikoen ondorioekin batera, mota horretako delituen biktimak kalte morala jasan dezakeela, kalte fisikoa bikotekideak edo bikotekide ohiak eragiten duen neurrian, baita mota horretako delituetan ohikoak diren beste inguruabar batzuentatik ere.

Beraz, argi dago kalte morala eta lesio fisikoak eragindako kaltea desberdinak direla; izan ere, ikusi dugu 35/2015 Legearen baremoaren arabera kuantifikatu egin daitekeela kaltea, eta kontua da zehaztea ea baremoa aplikagarria den kalte moralaren kasuan.

Jurisprudentziak genero-indarkeriak eragindako kalteak ordaintzeko irizpide orientagarri gisa ezartzen badu ere, osasun-arloko altaren datan baremoa % 10 eta % 20 artean handitzen da, ondoren aztertuko da ea genero-indarkeriako gertakariak eragindako kalte moralak indemnitzatuak izan daitezkeen baremoan xedatutakoaren arabera. Irizpide ekonomikoekin kuantifikatu ahal izango da kalte moralengatik kalte-ordaina?

Horri dagokionez, AGaren 2014 urteko urtarrilaren 30eko 180/2014 Autoak, kalte moralengatik kalte-ordainaren aldeko epaia ematen du⁷⁰. AGak biktimaren berdura, erruduntasun-sentimenduak eta jokabide saiheslea kontuan hartzen ditu. Gainera, gaineratu duenez, biktima horrek antsietate handiko egokitze-nahasmendua du salatutako gertakarien ondorioz (ohiko indarkeria fisiko eta psikikoaren delitua genero-indarkeriaren esparruan). Beraz, AGak hurrengo adierazten du: Ondorio psikiko eta kalte moral horiek ordaindu egin behar dira, eta Salak egokitzat jotzen du Ministerio Fiskalak ezarritako 18.000 euroko zenbatekoa kalte moralengatik - kasu honetan kalte psikikoak ez dira bereizita ordainduko-. Salaren aldetik ez da hutsegiterik edo arbitrariotasunik ikusten kalte-ordaina finkatzean. Behar bezala azaldu eta arrazoitu da, eta, beraz, eutsi egin behar zaio”.

⁷⁰2014ko urtarrilaren 30ko 180/2014 Auzitegi Goreneko Autoa.

Beraz, arestian esandakoa kontuan hartuta, eta AGaren 2014 urteko otsailaren 11ko epaiak ondo adierazten duen bezala, kalte moralaren kalte-ordaina ematerakoan adierazten duen bezala⁷¹, organo judizialek ezin dute kalte-ordain morala irizpide ekonomikoen arabera kuantifikatzeko moduko frogarik izan, askotariko magnitude eta homologaezinak direlako. Horrenbestez, kasu horietan, gertaeren larritasuna, egitateen benetako edo balizko garrantzia, egitateen garrantzia eta gizartean duten gaitzespena, bai eta biktimen inguruabar pertsonalak eta, akusazioek eskatutako kopurua nabarmendu besterik ezingo dute egin⁷².

Era berean, AGak alegatu du kalte morala ez dela zehaztu behar frogatutako egitateetan, kontakizun historiko horretik zuzenean eta modu naturalean gertatzen denean. Hala gertatzen da kalte morala babestutako ondasun juridikoaren garrantziaren eta hura modu kriminalean lesionatu duen ekintzaren larritasunaren ondorio denean, bai eta delituak biktimarekiko duen esanahi espiritualaren ondorio denean ere⁷³.

Beraz, kalte eta kalte animiko horien ordaina neurtzeko oinarri bakarra delitu-egitatea bera da, eta horren ondorio edo kausazko emaitza hauek izan ohi dira. Horrenbestez, gertaeraren deskribapena bera da auzitegi epai-emaileak adierazitako kalte-ordainaren "*quantum*"-a oinarritzen duen oinarria, zuhurtziazko diskrezionalitate bat erabiliz, zeina kasazioan soilik berriki baitaiteke balorazioak gutxieneko mugak gainditzen dituenean – edo arrazoizko kalte-ordain hori zuhurtziaz ematen ez denean –.

Azkenik, biktima psikologikoki kaltetuta geratu dela frogatzeari dagokionez, AGak behin eta berriz adierazi du kalte moralak ez direla zehaztu behar biktimek jasandako alterazio patologiko edo psikologikoekin lotuta, eta, horren ondorioz, epaitegiek normalean ezin izango dute frogarik izan kuantifikazio ekonomikoa errazteko. Kalte morala ekonomikoki kuantifikatzeko, gertakariaren larritasunaren adierazpenak eta biktimen inguruabar pertsonalak kontuan hartu beharko dira irizpidetzat⁷⁴.

⁷¹ 2014ko otsailaren 11ko AGE.

⁷² Auzitegi Gorenaren 1997ko martxoaren 24ko epaia.

⁷³ Auzitegi Gorenaren abenduaren 11ko 1198/2006 epaia; otsailaren 2ko 131/2007 epaia; uztailaren 3ko 643/2007 epaia; azaroaren 4ko 784/2008 epaia.

⁷⁴ Auzitegi Gorenaren 1998ko maiatzaren 16ko epaia; 2000ko maiatzaren 29ko epaia; 2001ko maiatzaren 29ko epaia; 2001ko maiatzaren 29ko epaia.

Beraz, kalte moralak ordaindu behar direnean, organo judizialek ezin dute izan bidezko kalte-ordaina irizpide ekonomikoekin kuantifikatzea ahalbidetuko dien frogarik, eta, beraz, kalte animiko horien kalte-ordaina neurtzeko oinarri bakarra delitu-egitatea bera izango da, hau da, kalte horien eskumena edo kausazko emaitza, halako moldez non gertakariaren deskribapena bera baita kalte-ordainaren zuhurtziagabekeriaren oinarria, auzitegi epai-emaileak adierazia. Ondoren, genero-indarkeriaren arloko kalte moralak zehazteko, frogatzeko eta baloratzeko modua aztertuko da.

6. KALTE MORALAREN BALORAZIO ETA KUANTIFIKAZIOA GENERO INDARKERIAREN KASUAN

Kalte morala ordaintzeko orduan 35/2015 Legea guztiz eraginkorra ez bada ere, zenbait parametro finka daitezke, kalte morala erreklamatzeko duen alderdiak alegazioetan eta epaiketaren azken txostenean epaileari edo auzitegiari azaldu ahal izango dizkionak, eta horiek epaian azaldu eta arrazoitu ahal izango ditu, kalte moralagatik ematen duten zenbatekoa ondorioztatu ahal izateko.

Ezin da onartu epai batean zoriz kopuru bat kalte moral gisa finkatzea. Kopuru bat finkatzerako orduan egiaztagiri bat egin behar da, kopuru hori zergatik ematen den arrazoituz.

6.1 Biktimaren inpaktuzko deklarazioa

Jasandako kalte morala kuantifikatzeko kontuan hartu behar diren elementuei buruzko erabakia hartzerakoan, biktimaren deklaraziotik abiatu behar da (biktimaren inpaktu-deklarazioa), akusazioaren galdeketa kalte moralaren esentziari eragiten dioten funtsezko elementuak bereziki azpimarratuko baititu, hau da, sufrimendua, kezka, urduritasuna eta abar.

Horrela, akusazioaren galdeketa ez da gertaerei buruzkoa bakarrik izango, delituak biktimarengan dituen ondorio pertsonalak ere kontuan hartuko dira, bai eta delituak biktimari nola eragin dion ere, eta horrek sufritu duena.

Kalte morala kuantifikatu ahal izateko biktimaren inpaktu-adierazpena kontuan hartu beharri dagokionez, AGaren 695/2020 epaiak honako hau adierazten du⁷⁵: *“La declaración de impacto de la víctima da a las víctimas de delitos una voz en el sistema de justicia penal. Permite a las víctimas explicar al Tribunal con la presencia del delincuente, con sus propias palabras, cómo les ha afectado el delito. Y esto tiene gran relevancia para el tribunal a la hora de tomar la decisión, analizando en ese contexto si es veraz, o no, esa declaración y, sobre todo, cómo le afectó el delito.”*

Beraz, fiskalak eta akusazio partikularrak biktimari zuzendutako galderak sartu beharko dituzte beren galdeketan, delituak biktimari nola eragin dion zehazteko.

6.2 Kalte morala ebaluatzeko kontu hartu beharreko zenbat irizpide

MAGRO SERVET aipatzen duen bezala, zenbait parametro finka daitezke kalte morala finkatzerakoan⁷⁶.

A) Biktimaren eta kaltetuen sufrimendua delitu batzuetan duen garrantzia.

Argi dago zentzu pertsonala duten delituetan kalte moralari dagokionez afektazio handiagoa dagoela. Delitu horien artean, genero-indarkeriako delituak aipatu behar dira; izan ere, biktimaren eta akusatuaren artean harreman sexual-afektiboa egon da, delitu-egintzarekin hautsi den maitasunean eta konfiantzan oinarrituta. Gainera, kasu horietan delitua egin bitartean dagoen sufrimendua aipatu behar da, genero-indarkeriako kasuetan tratu txarrak jarraituak izaten baitira.

Beraz, genero indarkeriako delituetan kalte moral handia kuantifikatzeko irizpidetzat hartu daiteke irizpide hau, delitu honek biktimarengan eta kaltetuarengan karga pertsonala suporatzen duelako, delitua gertatu aurretiko egoerara itzultzea zailduz. Beraz, genero indarkeriako delituetan, denboran zehar delituak izango dituen ondorioak ekonomikoki saritzeaz gain, delitua horregatik jasan behar izandako sufrimendu berezi eta espezifikoa kontuan hartu beharko da.

⁷⁵ 2020ko abenduaren 16ko AGE.

⁷⁶ MAGRO SERVET, Vicente, *Aproximación a la cuantía de las indemnizaciones por daño moral y criterios para la determinación del cálculo*, Diario La Ley, 9944. zk, Doktrina Atala, 2021ko azaroaren 3, Wolters Kluwer.

B) Delituaren jarraipena

Delitua jarraitua izateak larriagotu egiten du sufrimendua eta ondorio psikikoak izateko aukera, ez-zilegi penalaren iraupenagatik eta denboran errepikatzeagatik

C) Biktimak delituaren biktima izatean egiteari utzi behar izan dion bizitzako kontuak

Kalte morala baloratzeko orduan, kontuan hartu behar da delituak biktimaren bizitzan nolabaiteko eragina izan duen, hau da, lanean, etxetik irtetean, hirugarrenekin harremanetan jartzean eta eguneroko gainerako egoeretan eragozpenik eragin duen.

D) Delitua egin bitartean izandako sufrimenduaren, urduritasunaren, ezinegonaren, antsietatearen larritasun-maila

Biktimak delituak iraun zuen bitartean igaro behar izan zuen unea biktimaren deklarazioaren kontakizunean islatzen da. Kontakizun horren bidez, larritasun-maila ikus daiteke, kalte morala zehaztu eta kuantifikatu ahal izateko.

E) Sufrimendu hori denboran mantentzea

Kuantifikazioa baloratzeko orduan, beharrezkoa da jakitea delitua puntualki gertatu den edo denboran jarraitua izan den.

F) Biktimaren egoera delituaren ondoren

Parametro hori oso garrantzitsua da kalte morala ebaluatzeko orduan. Egiazta daiteke nola eragin zion delituak biktimari, eta, horren erruz, haren bizitzak aldaketak izan ditu, haren ondorengo egoerak.

G) Afektazioak kalte psikikoa eragin izana

Egia da kalte morala ordaintzeko orduan ez dela beharrezkoa akusatua biktimari kalte psikikoak eragitea, baina kuantifikazioa ebaluatzeko orduan, kontuan hartu beharreko datua da kalte psikikoa erakusten duten peritu-froga medikoak ematea.

Beraz, genero-indarkeriako kasuetan, non tratu txarrak ohikoak izaten diren, uste da predikagarria dela kalte morala erreklamatu eta eman daitekeela. Emakumeak sufritutako kalte morala handia izango da, azken finean delituaren egilea konfiantzazko pertsona bat izan baita.

6.3 Genero-indarkeriaren arloko kalte morala kuantifikatzea

Aurretik aipatu bezala, ondarezkoak ez diren kalteak konpentsatzeko zenbatekoa zehazterakoan, 35/2015 Legeak emandako baremoa orientagarritzat hartu daiteke soilik. Beraz, kontuan hartuta ez dagoela parametririk kalte morala termino ekonomikoetan zertan datzan islatzen duenik, eta delituzko egitate baten errudunak kalte-ordaina eman behar diola biktimari kalte eta galerengatik, hau da, kalte moralak eragin dituen kalteengatik, organo judizialak aintzat hartu beharko du konpentsazio ekonomiko.

Beraz, kalte morala baloratzeko orduan, kasu bakoitza hartu beharko da kontuan. Genero-indarkeriari dagokionez, esan daiteke kalte morala erabat ondoriozta daitekeela tratatu txar larriak edo errepikakorrak daudela frogatzen duten egitateetatik.

Kalte moralaren existentzia eta kuantifikazioari dagokionez, AGko 11/2016 epaia hurrengoa adierazten du⁷⁷: *“En relación al daño moral, esta Sala de Casación tiene declarado que su existencia y cuantificación corresponden al tribunal de instancia, cuyo criterio y decisión, como tribunal ante el que se practicó toda la prueba, debe ser, en principio aceptado por las instancias superiores, siempre que se fundamente su existencia y cuantía , es decir, que tenga la necesaria motivación exigible a todos los pronunciamientos que integran el fallo, y por lo tanto, que se sitúe extramuros de toda arbitrariedad tanto por ausencia de motivación como por fijar cantidades desmesuradas y/o desproporcionadas, o cuando rebasen las solicitudes de las partes concernidas”*.

Horretaz aparte AGak honako hau azpimarratzen du: *“El daño moral, por su propia naturaleza carece de una determinación precisa , y por ello, la existencia y cuantificación del daño moral solo puede ser establecido mediante un juicio global basado en el sentimiento social de la reparación del daño producido en la esfera moral por la ofensa delictiva, atendiendo especialmente a la naturaleza y gravedad del hecho y al dolor moral producido en las personas. SSTS 915/2010 ; 562/2013 ; 684/2013 ó 799/2013 .”*

⁷⁷ 2016ko urtarrilaren 21eko AGE.

Ikuspegi horretatik, epaile edo auzitegiari eskatzen zaiona kalte moralaren motibazio bat da, epaian haren aitortpenean finkatzen dena, eta hortik eratorriko da haren kuantifikazioa.

Beraz, AGaren zigor-arloko salaren jurisprudentziak nabarmendu duenez, kalte moralagatiko kuantifikazioa zehazteko arrazoiak zehazterakoan, gertaeren larritasunera jo behar da – egitateen benetako edo balizko garrantzia, horien garrantzi soziala eta gaitzespen soziala eta biktimaren zirkunstantzia pertsonalak –. Beraz, erabakitzeo askatasun zabala aitortzen zaie instantziako organoei. Hala ere, erabaki-askatasun horrek ezin du ekarri arrazoi onak, azaldutakoak eta azalpenezkoak emateko betebeharretik saihestea, alde batetik, ondorioen jurisdikzio-erabaki orori eska dakioken motibazio-betebeharra bete ahal izateko, eta, bestetik, erabakia bera modu arrazionalen justifikatzeko, benetako kontrola ahalbidetuz.

Bestalde, kalte morala kuantifikatzeko orduan, zigor-arloko epaitegiak, 58/2014 epaian⁷⁸, lau mailakatze-maila identifikatzen ditu, ohiko kalte psikologikoak eta tratu txarrek biktimaren bizi-kalitatean eragiten dituzten inpaktuei dagokienez:

- 1) Iraute hutsa – Kalterik larriena izango litzateke, lehenengo gradukoa–.
- 2) Gutxieneko ongizatea.
- 3) Ongizate egokia eta
- 4) Ongizate areagotua.

Beraz, epaian kalte morala zehaztean kontuan hartu dira, alde batetik, senarrak indarkeria jarraituan (genero-indarkeria) izandako jokabidearen elementu kuantitatiboa eta denborazkoa, eta, bestetik, biktimarengan sortutako ondorioak.

Bestalde, genero-indarkeriako delituetan, kontuan hartuta askotan erasotzailea biktimarekin elkarrekin bizi den edo izan den pertsona bat dela eta tratu txarrak ohikoak izaten direla, kalte morala handiagoa izango da. Honako elementu hauek hartuko dira kontuan (Magro Servet, 2017):

⁷⁸ 2016ko urtarrilaren 21eko AGE.

1. Denboran luzatutako harreman pertsonal baten ondorioz, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako eraso fisiko edo psikikoak eragindako sufrimendukalte pertsonala beste kasu batzuetan baino handiagoa izatea.
2. Tratu txarrak ikusten dituzten seme-alabak egon daitezkeenez, emakumeak gehiago sufritzen du bere seme-alabak tratu txarren lekuko isilak direla egiaztatzean, eta kalte pertsonal larriak eragiten dizkie etorkizunean ager daitezkeen seme-alabei.
3. Eragindako kalte fisikoaren balizko intentsitatea.
4. Ohiko tratu txar psikikoa edo fisikoa denboran luzatzea, min moral hori biktimaren sufrimenduak eraginda agertzen baita, molestia hutsetik harago.

Beraz, kuantifikazioa epaile edo auzitegiaren esku dago, eta epaileari kalte hori mailakatzeko aukera ematen dioten parametro guztiak hartu beharko dira kontuan, hala nola frogatutzat jotako gertaeren larritasuna eta inguruabarrak, tratu txar hori egiaztatzen duten seme-alabak egotea, tratu txarren iraupena eta epaiketan frogatu beharreko edo epaileak biktimaren deklarazioa ikusita ondorioztatutako biktimaren eragin pertsonalaren maila, eta horretarako egin den peritu-froga posiblea.

7. ONDORIOA

Azaldutako guztia kontuan hartuta, esan daiteke erantzukizun zibila emakumeen kontrako indarkeriaren baitan konplexutasun handia duen gaia dela eta eztabaida eta pentsamendu desberdinak sortu dituela gure sistema juridikoan, lan honetan zehar laburtzen saiatu direnak.

LEHENENGO.- Nabarmendu behar da kalte moralaren kontzeptualizaziorik eza, bai doktrinari bai jurisprudentziari dagokionez, figura juridiko horren esanahi osoa biltzen duen kontzeptu bat lantzeko zailtasunak aurkitu baitira. Kalte materialekin gertatzen ez den bezala, Kode Zibilak ez du kalte moralen aitorten espliziturik egiten kalte-ordain gisa, kalte moralaren kontzeptua zehaztea zaila eginez. Beraz, kalte morala sinesmenei, sentimenduei, duintasunari edo gizarte-estimuari eragindako kalte gisa identifikatu bada ere, kalte horren ordaina zehaztea zaila da, ez baitago kontzeptuaren definiziorik KZan. Horrela, kalte moralaren legezko kontzeptua ez dago berariaz aurreikusita gure sistema juridikoan.

Hala eta guztiz ere, argi dago kalte morala ondarez kanpoko kaltea dela eta dirutan ebaluatzea –behintzat modu erreal batean– ezinezkoa dela; izan ere, horrelako egoeretan balio ukiezinekin tratatzen da, hala nola larritasunarekin, sufrimenduarekin, zozobrarekin edo minarekin, eta zenbait zailtasun sortzen dira kalte horiek ekonomiko ordaintzeko orduan.

Beraz, organo judizialek hartu dute bere gain edukia zehazteko lana. Ondorioz, biktimei babes eta segurtasun juridikoa emateko helburuarekin, Kode Zibilean aitortu beharko litzateke kalte morala, honen definizio zehatz bat emanaz.

BIGARREN.- Era berean, kaltea ordaintzeko orduan, parametro edo irizpide batzuk finkatu behar dira eragindako kalteengatik ezarri behar diren kalte-ordainak zehazteko, eta zailagoa izango da irizpide jakin batzuk ezartzea ekonomikoki kuantitatiboak ez diren kalteetan, kalte moralak izango liratekeen bezala.

Genero-Indarkeriaren arloko erantzukizun zibilar dagokionez, Genero-Indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak ez du inolako baremo edo irizpiderik ezartzen eragindako kalteengatik ezarri beharreko kalte-ordainak zehazteko, beste mekanismo batzuk erabiliz, hala nola, 35/2015 Legea, Zirkulazio-istripuetan pertsonen eragindako kalte-galderak baloratzeko sistemaren erreformarena.

Horrenbestez, genero-indarkeriako egitateek eragindako kalteen kalte-ordainak finkatzera jotzeko, Genero-Indarkeriari buruzko LOak 35/2015 Legean aurreikusitako trafiko-baremora jotzen du.

Beraz, ezin da alde batera utzi trafiko-istripu batek eragindako kalteak eta genero-indarkeriaren arloko kalteak guztiz desberdinak direla, kontuan hartuta trafiko-istripuak zuhurtziagabekeriazkoak direla eta genero-indarkeriaren arloko delituak dolozkoak. Gainera, 35/2015 legearen baremoa irizpide orientagarria –eta ez nahitaezkoa– izango da kaltearen ordaina finkatzerako orduan. Hori dela eta, ondo legoke Lege-Proiektu bat sortzea edota 1/2004 Lege Organikoa eguneratzea baremo bat finkatzeko helburuarekin, horrela delitu mota horietako kalte-ordain egokia finkatu ahal izateko, biktimei merezi duten garrantzia emanaz eta, horrela, gaur egun dagoen lege-hutsunea betez.

HIRUGARREN.- Genero-Indarkeriaren arloan irizpide orientagarri gisa 35/2015 Legea erabiltzeko orduan, nabarmendu behar da Auzitegi Gorenak hainbat irizpide desberdin aplikatu dituela kalte-ordaina zehazteko orduan, nolabaiteko segurtasun juridikorik eza sortuz:

- Zirkulazioaren baremoaren taulak osasungintzan alta emateko datan, %10 eta %20 arteko igoera txiki batekin.
- Trafiko-baremoa %30 handituta kontuan hartzea.
- Trafikoaren baremoa gehikuntzarik gabe kontuan hartzea.
- Trafiko-baremoa irizpide orientagarri bezala kontuan hartzea.
- Epaileak irizpide-askatasuna izatea, Trafiko-baremoa kontuan izan gabe.

Beraz, genero-indarkeriako kasuetan, irizpide orientagarri gisa 35/2015 Legea hartu ahal izango da kontuan baina doktrinak ez du zehazten kontuan hartu beharreko irizpide bat, biktima desberdinak delitu berdinatik diru kopuru desberdina jasoz indemnizazio bezala, ezegonkortasun juridikoa sortuz. Hori dela eta, ondo legoke kaltea zehazteko orduan irizpideak bateratzea.

LAUGARREN.- Hori esanda, nahiz eta 35/2015 Legea eraginkorra ez izan kalte morala ordaintzeko orduan, zenbait parametro finka daitezke horren balorazioa eta kuantifikazioa arrazoitzeko.

Zer elementu hartu behar diren kontuan erabakitzerakoan, biktimaren deklarazioa bera hartu behar da kontuan, nola eragin dion gertatutakoa biktimari, zer jasan duen edo jasaten duen, zer aldaketa ekarri dituen bere egunerokoan eta horrelakoak jakiteko.

Horretaz aparte, hainbat faktore ere kontuan hartu behar dira, hala nola: 1) Biktimaren eta erasotzailearen artean egon den harremana, genero-indarkeriako kasuetan biktimak jasaten duen kalte morala handiagoa baita, erasotzailea pertsona garrantzitsua izan delako bere bizitzan. 2) Delituaren jarraitutasuna, jarraitutasun horrek delitua larriagotu egiten baitu. 3) Delituak biktimaren bizitzan nolabaiteko eragina izan duen. 4) Sufrimendu, egon ezin eta antsietate maila. 5) Sufrimendu hori denboran mantentzen den be kontuan hartu behar da 6) Delitua gertatu ondorengo biktimaren

egoera. 6) Delitua kalte psikikoak eragin dituen –ez da beharrezkoa biktimak kalte psikikoak izatea kalte morala sufritu ahal izateko–.

Bestalde, genero-indarkeriaren arloko kalte morala kuantifikatzeko, delitua biktimaren bizi-kalitatean sortzen duen inpaktua ere kontuan hartzen da, eta horrela, lau kalte-maila identifikatzen dira: 1) Biziraute hutsa; 2) gutxieneko ongizatea; 3) ngizate egokia eta, 4) ongizate areagotua.

Hala ere, nahiz eta kalte morala zehazteko eta ebaluatzeko irizpideak egon, hauek ez dira nahikoak izango kalte moralaren “*quantum*”-a zehazterako orduan, oso zaila baita biktimak jasandako kaltea kuantifikatzea.

Ondorioz, genero-indarkeriaren biktimei merezi duten babesa emateko, eragindako kalteak aitortzeko eta kalte-ordainak eman ahal izateko – ez erreparatzeko, kalte morala ezin baita diruarekin konpondu–, beharrezkoa da oraindik dagoen lege-hutsunea betetzea, kalte-ordaina emateko irizpideak bateratuz, 1/2014 Lege Organikoa eguneratuz edota lege-proiektu berri bat sortuz, horrela Genero-Indarkeriaren biktima bati eragindako kalteengatik kalte-ordaina ezarri behar den kasu judizialei erantzun judiziala eman ahal izateko.

8. BIBLIOGRAFIA

8.1 Doktrina

¿Qué es el lucro cesante y el daño emergente?, Promede, Madril, 2020ko abuztuaren 21. Eskuragarri: <https://promede.com/blog/que-es-el-lucro-cesante-y-el-dano-emergente/>.

ÁLVAREZ OLALLA, Pilar, *Violencia de género y responsabilidad civil*. Madril, Espainia, Editorial Reus, 2020.

CORCOY BIDASOLO, Mirentxu, *Problemática jurídico-penal y político-criminal de la regulación de la violencia de género y doméstica*. Revista de derecho (Valparaíso), 2010, 34. zk.

DE ASIS GARCIA SERRANO, Francisco. “*El daño moral extracontractual en la jurisprudencia civil*”, ADC, 1972.

DEL CORTE LÓPEZ, Javier, *Aspectos civiles de la violencia de género: indemnización del daño moral*, 2020ko azaroa.

DÍEZ-PICAZO, Luis, *Derecho de daños*, Civitas, 1999

FAYOS GARDÓ, Antonio. *Derecho civil: derecho de obligaciones*. Madril, Dykinson, 2019.

GARCÍA LÓPEZ, Rafael. *Responsabilidad civil por daño moral. Doctrina y jurisprudencia*, 1990, Librería Bosch.

GORJÓN BARRANCO, María concepción, Y BERDUGO GOMÉZ DE LA TORRE, Ignacio, *La respuesta penal frente al género. Una revisión crítica de la violencia habitual y de género*, Salamankako unibertsitatea, 2010.

HERRERO ÁLVAREZ, Sergio, *El ajetreo jurisprudencial sobre la dispensa del deber de declarar en procesos por violencia de género: la sentencia 389/2020, de 10 de julio*, Diario La Ley, 9693. zk, 2020.

INEbase / Sociedad /Seguridad y justicia /Estadística de violencia doméstica y violencia de género / Últimos datos, INE, 2021eko maiatzaren 11. Eskugarri: https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176866&menu=ultiDatos&idp=1254735573206#:~:text=El%20n%C3%BAmero%20de%20mujeres%20v%C3%ADctimas,creci%C3%B3n%20un%20%2C2%25.

Irene Montero aprueba un gasto de 20.319 millones para Igualdad. El Independiente, 2022ko maiatzaren 9. Eskuragarri: <https://www.elindependiente.com/espana/2022/03/08/irene-montero-aprueba-un-gasto-de-20-319-millones-para-un-plan-estrategico-de-igualdad/>

La pandemia en la sombra: violencia contra las mujeres durante el confinamiento, ONU Mujeres, 2020ko apirilaren 6. Eskuragarri: <https://www.unwomen.org/es/news/in-focus/in-focus-gender-equality-in-covid-19-response/violence-against-women-during-covid-19>.

LORENTE-ACOSTA, Miguel. *Violencia de género en tiempos de pandemia y confinamiento. Revista Española de Medicina Legal*, 46. bolumena, 3. zk, 139-145 orr, 2020ko uztaila-iraila. Eskuragarri: <https://www.elsevier.es/es-revista-revista-espanola-medicina-legal-285-articulo-violencia-genero-tiempos-pandemia-confinamiento-S0377473220300250>

MAGRO SERVET, Vicente, *El daño moral indemnizable en la violencia de género*, Diario La Ley, 9015. zk, 2017.

MAGRO SERVET, Vicente, *La violencia económica en la violencia doméstica y de género. ¿Hacia un baremo indemnizatorio para las víctimas?*, Diario La Ley, 6109. zk, Doktrina Atala, 2004ko urriaren 19.

MAGRO SERVET, Vicente, *La necesidad de unificar criterios indemnizatorios en violencia de género*, Diario la Ley, Welters Kluwer Editoriala, 8757. zk, 2016.

MONTERO DE ESPINOSA RODRÍGUEZ, Nieves, *La valoración del daño en las víctimas de la violencia de género*, Estudios de Derecho Judicial, Madril, Espainia, 2008.

MUÑOZ CONDE, Francisco, *Derecho Penal. Parte especial*, Tirant lo Blanch, Balentzia, 2015.

NAVEIRA ZARRA, Maita María, *Clases de daños resarcibles. El resarcimiento del daño en la responsabilidad civil extracontractual*, Coruña unibertsitatea, 2004.

PANTALEÓN Fernando, *cómo repensar la responsabilidad civil extracontractual*, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, AFDUAM 4, 2000.

PERIS VIDAL, Manuel, *La importancia de la terminología en la conceptualización de la violencia de género*, Oñati Socio-legal Series (on line), 5. bolumena, 2. zk, 2015.

ROCA TRÍAS, Encarna, y NAVARRO MICHEL, Mónica, *Derecho de Daños, Textos y Materiales*, 5. Bolumena, Tirant lo Blanch, Balentzia, 2011.

ROCA TRÍAS, Encarna, Y NAVARRO MICHEL, Mónica, *Derecho de daños. Textos y materiales*, 8. Bolumena, Tirant lo blanch, Valencia, 2020.

SANTOS BRIZ, Jaime. *La responsabilidad civil: derecho sustantivo y derecho procesal*. Montecorvo Argitaletxea, 1977.

VELA SÁNCHEZ, Antonio, *Claves para la indemnización por daño moral en la violencia de género sobre la pareja*, Diario La Ley, 9774. zk, Doktrina Atala, Wolters Kluwer Editoriala, 2021ko urtarrilaren 20a.

8.2 Legeria

1889ko uztailearen 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena.

1979ko abenduaren 18ko Konbentzioak, emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzkoa.

3/1989 Lege Organikoa, ekainaren 21ekoa, Zigor Kodearen eguneratzekoa.

1993an Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko 48/104 Ebazpena.

10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa.

1998ko apirilaren 30aren Espainiako Gobernuaren Etxeko Indarkeriaren aurkako Ekintza Plana.

1/1998 Zirkularra, urriaren 24koa, Fiskaltzak etxeko eta familiako tratu txarren jazarpenean esku hartzeari buruzkoa.

14/1999 Lege Organikoa, ekainaren 9koa, tratu txarren biktimak babestearen arloan 1995eko ZK eta PKL aldatzen dituen.

27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua arautzen duena.

11/2003 Lege Organikoa, irailaren 29koa, Herritarren Segurtasunaren, Etxeko Indarkeriaren eta Atzerritarren Gizarteratzearen arloko Neurriei buruzkoa.

15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25ekoa, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena.

1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzkoa.

1/2004 lege organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.

1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, azaroaren 23ko 10/1995 LO aldatzen duena.

8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena.

35/2015 Legea, irailaren 22koa, Zirkulazio-istripuetan pertsonei eragindako kalte-galerak baloratzeko sistemaren erreformarena.

42/2015 Legea, urriaren 5koa, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea erreformatzen duena.

1/2021 Legea, martxoaren 24koa, genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta haiei laguntzeko premiazko neurriei buruzkoa.

8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzkoa.

2022-2025 urteko Emakumeen eta Gizonen berdintasun eraginkorrerako III. Plan Estrategikoa.

8.3 Jurisprudentzia

Auzitegi Gorenaren 1990eko uztailaren 6ko epaia.

Auzitegi Gorenaren 1990eko uztailaren 23ko epaia.

Auzitegi Gorenaren 1995eko maiatzaren 22ko epaia.

Auzitegi Probintzialeko Sententzia, Balentzia, 8. atala, 1995eko ekainaren 14a.

Auzitegi Gorenaren 1997ko martxoaren 24ko epaia.

Auzitegi Gorenaren 1998ko maiatzaren 16ko epaia.

Auzitegi Gorenaren 1998ko urriaren 27ko epaia.

Auzitegi Gorenaren 1999eko maiatzaren 12ko epaia.

Auzitegi Gorenaren 2000ko maiatzaren 29ko epaia.

Auzitegi Gorenaren 2001ko otsailaren 22ko 139/2001 epaia.

Auzitegi Gorenaren 2001ko maiatzaren 29ko epaia.

Auzitegi Gorenaren 2003ko otsailaren 13ko epaia.

Auzitegi Gorenaren 2003ko otsailaren 21eko epaia.

Auzitegi Gorenako 2003ko ekainaren 9ko 833/2003 epaia.

Auzitegi Gorenaren abenduaren 11ko 1198/2006 epaia.

Auzitegi Gorenaren otsailaren 2ko 131/2007 epaia.

Auzitegi Gorenaren uztailaren 3ko 643/2007 epaia.

Auzitegi Gorenaren azaroaren 4ko 784/2008 epaia.

Auzitegi Gorenako 2010eko maiatzaren 15eko 4384/2010 epaia.

Auzitegi Gorenaren 2010eko ekainaren 15eko epaia.

Auzitegi Gorenako 2011eko abenduaren 14ko 855/2011 epaia.

Auzitegi Gorenaren 2014ko urtarrilaren 30eko 180/2014 Autoa.

Auzitegi Gorenaren 2014ko otsailaren 11ko epaia.

Kartagenako Zigor-Arloko 2014ko otsailaren 27ko 58/2014 epaia.

Auzitegi Gorenaren 1743/2014 epaia.

Auzitegi Gorenako 2015ko otsailaren 17ko 1743/2014 epaia.

Auzitegi Gorenaren 2016ko urtarrilaren 21eko 11/2016 epaia.

Auzitegi Gorenaren 2020ko abenduaren 16ko 695/2020 epaia.